Aipatu egoera larri honetan, jaun-andreok, bada salbuespen garrantzitsu bat. ETAren aurkako borrokan eta pakeratze-bidean beti izango gaituzue zuen alde. Bortxazaleak baztertzeko politika eta gizartearekiko buruzagitzari bultzada berria eman beharraz zorrotzak izango gara; egitez, ordezkatzen dugun gehiengoa berreskuratzeko eta pakeratze-bidea indarberritzeko. ETAren aurkako borrokan Ertzaintza arian-arian sartu eta horretan gaitasun gehiago lortu dezan zorrotzak izango gara. Mafiaren aurkako borrokan zorrotzak izango gara, hark bereziki autobidean edo iraultzaren aldeko zergan gaur zoritxarrezko gaurkotasuna duelarik. Baina, guzti honekin batera, jakin ezazu, lehendakarigai jauna, gure laguntza leiala, benetakoa, erabatekoa izango duzula, Ajuria Eneako Hitzarmenean, terrorismoaren aurkako borrokan eta pakeratze-bidean.

Bukatzera noa. Aurkaritza egitea dagokigu eta hasieran esaten nizunez, zinez, arduratsu eta modu baikorrean egitea espero dut. Zure Gobernuarekin bat ez datorren jendearen iritzia adieraziko dugu, egindakoarekin bat ez datorrela, gaizki egin edo egiten ez duena eta euskerarekiko politikan, hezkuntzan, etxebizitzan, osasunean edo behea jotako eremuetan egokitasunez ez iharduteagatik bereizkatutakorik gertatuz gero, horien alde egingo dugu. Izan ere sozialistok, jaun-andreok, bereizkeriaren aurkako borroka politika aurrerakoiaren giltzarria dela pentsatzen dugu.

Baina ez dugu aurkaritza seta hutsez aurka egiteko tresna bihurtuko. Ez dugu aitormen hutsezko alderdi bat izateko joerarik. Aurkaritza sinesgarritasuna, gizartearekiko atxikitasuna sortuz egingo dugu. Eta halakorik behar denean eta zuek irizkidetasunean, neurritasunean, eta benetan itune-bilaketan oinarritutako politika-iharduna duzuenean, jakin ezazu, lehendakarigai jauna, hor bat egingo dugula, eta espero dut jaun horrek honako hau berraurkituko duela: benetako hitzarmena herri honetan ez dela abertzaleen arteko hitzarmena, abertzaleen eta sozialisten artean beharrezkoa dena baizik.

Nahitaezkoa eta gizalegezko betebeharra da edozein Jaurlaritza berriri bere egitasmoak bideratzen hasteko epea uztea. Programa eta Gobernu hauekin izango duzun zenbait arrisku larri aipatu nahi izan dizut, eta horregatik zu izendatzearen aurkako botoa emango dugu. Baina -sinistu eidazu, lehendakarigai jauna-, uste hauei dagokienez oker banengo izugarri poztuko nintzateke. Horregatik, herri honek dituen erronkei aurre egiteko daukazuen bataz-besteko gehiengoak ematen dizu-

da la mayoría relativa de que dispone para afrontar los retos que tiene este país, si lo hace desde una perspectiva integradora de verdad, si son capaces de pactar políticas sectoriales; si, en definitiva, la práctica política de su Gobierno camina hacia la recuperación del pluralismo que iniciamos la Legislatura pasada y asegura los valores conseguidos en ella, no dude, señor Ardanza, que tendrá en los Socialistas Vascos no sólo una oposición leal y constructiva, sino, además, una colaboración de inestimable importancia para el futuro de este pueblo. Gracias.

El Sr. **PRESIDENTE**: Muchas gracias, señor Jáuregui.

Euzko Abertzaleak Taldeko ordezkaria da izpidearen jabe.

El Sr. **OLLORA OCHOA DE ASPURU**: Señor Presidente, señoras y señores, en el trámite en que nos encontramos pretendo, en nombre del Partido Nacionalista Vasco, justificar y razonar por qué vamos a dar con entusiasmo y convicción el voto a don José Antonio Ardanza como Lehendakari de este país, y con el voto comprometer como partido y como grupo parlamentario nuestro apoyo al Gobierno que, de salir elegido don José Antonio Ardanza, tiene la responsabilidad de formar y dirigir.

Cuatro grupos de grandes consideraciones justifican nuestro posicionamiento: el proyecto político con el que se presenta, que acabamos de escuchar; la filosofía, las actitudes, las apuestas en definitiva que se derivan de ese proyecto, filosofía y actitudes que son también las del Partido Nacionalista Vasco; los compromisos que como partido que apoya al Gobierno pretendemos desarrollar y que se contienen en el programa presentado y suficientemente conocido por sus señorías, y, finalmente, nuestra convicción política y humana de que la persona presentada como candidato a Lehendakari es la persona idónea para dirigir el Gobierno que se forma y llevar a cabo la realización de este programa.

Normalmente los programas, todos los programas, constituyen un recetario de medidas, de ilusiones e intenciones que los Gobiernos pretenden desarrollar, con los que se someten a juicio y control del Parlamento durante sus años de vigencia y que al final, en función de sus aciertos y errores, reciben la sanción última y suprema en forma de mayor o menor respaldo electoral.

En cualquier caso, lo que yo espero que podrá convenirse por todas las fuerzas presentes en esta Cámara en relación con el programa es lo siguiente: la profundidad, la concreción, el grado de desarrollo y elaboración que este programa presentado resumidamente por el candidato Ardanza contiene. Supongo que esta apreciación no generará mucha discusión; incluso en la fase negociadora fue reconocida por alguna formación política hoy presente en esta Cámara en los escaños de la oposición. Convengamos, pues, que al menos en este programa hay horas, reflexión, trabajo, conciliación entre las fuerzas políticas que lo apoyan. Independientemente de que se esté de acuerdo o no, que se compartan o no los extremos ahí contenidos.

En segundo lugar, e intentando por ahora seguir en el camino de las coincidencias, supongo y espero que se compartirá lo acertado del diagnóstico que sobre la sociedad vasca allí se hace y de los retos que se le presentan. Entre otras cosas, porque no es un mérito exclusivamente de los partidos políticos que lo han elaborado y lo apoyan, sino que en última instancia recoge diag-

na baino irizkidetasun zabalagoa bilatzeko gai bazarete, egiazko osatze-ikuspegitik egiten baduzu, alorkako politikak ituntzeko gai bazarete; azken batean, zure Gobernuaren ihardun politikoa aurreko Legegintzaldian hasi genuen aniztasunera bideraturik badoa eta horretan lortutako balioak bermatzen baditu, zalantzarik ez izan, Ardanza jauna, Euskal Sozialistengan aurkaritza leiala eta egikorraz gain, gainera, herri honen etorkizunerako ezinbesteko garrantziko laguntza izango duzu. Eskerrik asko.

**LEHENDAKARI** jaunak: Eskerrik asko, Jáuregui jauna.

Tiene la palabra el representante del Grupo Nacionalistas Vascos.

**OLLORA OCHOA DE ASPURU** jaunak: Lehendakari jauna, jaun-andreok, gauden biderapenean nahi dut, Euzko Alderdi Jeltzalearen izenean, gogo beroz eta sinistuta on José Antonio Ardanza herri honetako Lehendakari izendatzearen aldeko botoa emango dugula azaldu eta jarrera honen zuripideak eta arrazoiak eman eta, era berean, alderdi garenez eta legebiltzar-talde garenez, on José Antonio Ardanza hautatua gertatuko balitz osatu eta zuzendu beharko duen Gobernuak gure laguntza izango duelako hitza eman.

Garrantzizko oharren lau multzok zuritzen dute gure jarrera: aurkeztu den egitasmo politikoa, orain entzun berri duguna; egitasmo horri darizkion filosofia, jarrerak, demak, Euzko Alderdi Jeltzalearenak ere diren filosofia eta jarrerak; Gobernuari eusten dion alderdi garenez aurrera eraman nahi ditugun eta aurkeztutako eta zuentzako, jaun-andreak, nahikoa ezaguna den programan bilduta dauden hitzemateak, eta, azken batean, lehendakarigai gisa aurkeztutako laguna eratzen den Gobernua zuzentzeko eta programa hau gauzatzeko egokiena delako gure sinismena, gizaki eta politika-arloko sinismena.

Programak, ohi denez, programa guztiak, Gobernuek garatu asmo dituzten neurriak, itxaropenak eta asmoen bildumak dira, horiekin, eta indarrean dauden urteetan, Legebiltzarraren iritzi eta artapean egoten direla eta azkenean, euren kausitze eta hutsegiteen arabera, hauteskundeetan laguntza handiagoa edo txikiagoa lortuz azken eta goren ordaina jasotzen dutela.

Nolanahi ere, programari dagokion puntu batean Biltzar honetako indar guztiak ados jarri ahal izango direla uste dut: Ardanza jaunak labur-labur aurkeztu duen programa honek dituen sakontasuna, zehaztasuna, garapen eta egiterapen-maila. Haztapen honek eztabaida handirik sortuko duenik ez dut uste. Gaur Biltzar honetan aurkaritzaren tokietan dagoen indar politikoren batek ere horrela aitortu zuen itunebideak egin ziren aldian. Onar dezagun, bada, programa honetan gutxienez orduak, hausnarketa, lana, itunebidea daudela eusten dioten indar politikoen artean. Ados egon edo ez egon, hor bildutako aldeak onartu edo ez onartu.

Bigarrenik, eta oraingoz bat etortzeen bidean jarraitu asmoz, euskal gizarteari buruz eta horri aurkezten zaizkion erronkei buruz han egiten den azterketaren zuzentasunarekin guztiok bat egiten dugula uste eta espero dut. Besteak beste, hori ez delako egin duten eta eusten dioten alderdi politikoen meritu soilik, baizik eta, azken maila batean, talde politiko guztiek, hauteskunde-lehia

nósticos y problemas que todas las formaciones políticas hemos formulado reiteradamente antes, durante y después de la confrontación electoral. Ahí, pues, puede encontrarse otro bloque de coincidencias y -permítanme confesarlo- constituye otra de las virtudes del programa presentado.

Pero, con todo, eso no es suficiente y no lo es todo. El programa acordado por los grupos políticos de la coalición y presentado por el candidato Ardanza contiene otra serie de aciertos que resumidamente me van a permitir que señale. Primero, desde el Partido Nacionalista Vasco estimamos que es un programa acorde con las necesidades de la sociedad vasca ante el reto de los 90; necesidades y retos económicos y sociales que vienen fundamentalmente marcados por el nuevo mundo que la Europa del Mercado Único va a inaugurar en 1993. La explotación de la centralidad vasca a través de la realización de las obras de infraestructura, el reajuste permanente en la economía a fin de incrementar su competitividad, la puesta al servicio de estos objetivos, de los recursos públicos suficientes y necesarios, aparecen -así modestamente lo estimamos en el PNV- conveniente y adecuadamente formulados y establecidos.

Segundo, nos parece un programa sólidamente asentado en los pilares objetivos de bienestar y de progreso. Pocas cosas -por no decir que ninguna- escapan de lo que son necesidades e inquietudes de los ciudadanos. Todas están allí recogidas. Todas presentan medidas, proyectos e intenciones de ser resueltas. Muchas de entre ellas recogen y reevalúan experiencias anteriores, las prolongan, las recogen y reformulan, las adaptan a las necesidades de una sociedad cambiante. Con un solo objetivo: aumentar el bienestar de los ciudadanos con criterios de equidad y libertad, haciendo bueno el binomio autonomía-bienestar, justificando en última instancia la esencia de una democracia, de la función y de objetivos de un Gobierno. Para eso está el Gobierno y para eso estamos nosotros.

También el programa nos parece un programa innovador en muchos aspectos. En otras palabras, lo contrario de conservador. Innovador, en el sentido de novedoso, en la forma de aportar y presentar nuevos planteamientos, imaginativo y antidogmático, liberado de anclas ideológicas propias de la sociedad del pasado y no de la que está cambiando, o de la sujeción a estrictos intereses electorales.

Y en este sentido me gustaría detenerme en dos aspectos sectoriales del programa, los que se refieren a educación y a vivienda. Respecto al primero quisiera destacar el nuevo y novedoso modelo presentado, que sustituye la dicotomía y pugna escuela pública "versus" escuela privada por un sistema de red mixta de interés general e interés particular, con una concepción de complementariedad y de servicio a la sociedad; que pretende integrar coherentemente el mundo de las ikastolas; que contiene una llamada hasta exagerada al consenso de toda la comunidad educativa, sin la cual, evidentemente, nada se podrá llevar a cabo; que presenta una serie de compromisos legislativos concretos y fechados en el tiempo; que refuerza la autonomía del sistema, y que centra las cuestiones de resolución en las finalidades a conseguir: la calidad de la enseñanza, que lo es de toda la comunidad educativa, y la ausencia de discriminación en el acceso a la formación, reforzando la gratuidad del proyecto.

En cuanto a la vivienda, partiendo, en nuestra opinión, de un excelente diagnóstico de la situación, se abordan soluciones e iniciativas novedosas, como el establecimiento de un tipo de vivienda a un precio accesi-

aurretik, bitartean eta ondoren, behin eta berriz aipatu izan ditugun azterketa eta arazoak biltzen ditu. Hor, bada, bat etortzeen beste multzo bat aurki daiteke eta hau -utzi eidazue aitortzen- aurkeztutako programaren birtuteetako beste bat izan daiteke.

Baina, dena den, hori ez da aski eta ez da dena. Koalizioko talde politikoek erabakitako eta Ardanza lehendakarigaiak aurkeztutako programak, labur aipatzen utziko didazuen beste zenbait aparate dauka. Lehendabizi, Euzko Alderdi Jeltzaletik uste dugu euskal gizarteak 90eko hamarraldiaren erronkaren aurrean dituen beharrei egokitzen zaien programa dela; batez ere Merkatu Bakarreko Europak 1993.ean zabalduko duen mundu berriak zehazten dituen beharrak eta ekonomi eta gizarte-erronkak. Azpiegitura-lanak eginik Euskal Herriaren erdikotasunaz baliatzea, lehiakortasuna gehitu asmoz etengabeko birregokitzeari ekitea, helburu hauen zerbitzura behar hainbateko eta beharrezko baliapide publikoak jartzea, guztiak -EAJren uste apala da- behar bezala eta egokiro zehaztuta eta ezarrita agertzen dira.

Bigarren, ongizate eta aurrerabidearen helburuetan sendo oinarritutako programa iruditzen zaigu. Herritarren behar eta kezkei dagokienez, gauza gutxi -guztiak biltzen dituela ez esatearren- geratzen da kanpoan. Guztiak han bilduta daude. Guztiek aurkezten dituzte neurriak, egitasmoak eta erabakiak izateko asmoak. Horietako askok aurreko esperientziak bildu eta berraztertu egiten dituzte, luzatu, bildu eta berriz aurkezten dituzte, gizarte aldakor baten beharrei egokituz. Helburu bakarrarekin: berdintasun eta askatasun irizpideei jarraiki herritarren ongizatea gehitzea, burujabetasun-ongizate bikotea gauzatuz, azken maila batean demokraziaren funtsa, Gobernu baten egitekoaren eta helburuen funtsa zurituz. Horretako dago Gobernua eta horretako gaude gu.

Baita ere, programa alderdi askotan programa berritzailea iruditzen zaigu. Beste hitz batzutan esanda, iraunzalearen aurkakoa. Berritzaile, berria delakoaren aldetik, aurkezpen berriak eman eta azaltzeko moduagatik, irudimentsua eta dogmaren aurkakoa, aintzinako gizartearen -eta ez aldatzen ari denaren- ezaugarri ziren pentsakerazko ainguren menpekotasunetik, edo hauteskundeetako interes hutsen loturatik jare dagoena.

Eta alde honetatik, programaren alorkako bi alderdi lasaiago aztertu nahiko nuke, hezkuntzari eta etxebizitzari lotutako alderdiak, hain zuzen. Lehendabizikoari dagokionez aurkeztutako eredu berria azpimarratu nahi nuke, herri-eskola "versus" eskola pribatua dikotomia eta borrokaren ordez interes orokorreko eta interes partikularreko bitariko sarearen sistima ezartzen duena, gizartearekiko osagarritasuna eta zerbitzua iruditzen duena; ikastolen mundua egokitasunez finkatu nahi duena; hezkuntz elkarte osoaren irizkidetasunerako ia gehiegizkoa den deia biltzen duena, hori barik, jakina, ezer egiterik ez bait dago; legegintza-hitzemate zehatzak eta epe jakinekoak aurkezten dituena; sistimaren autonomia berrindartzen duena, eta erabaki beharreko arazoak lortu beharreko xedeetara zuzentzen dituena: irakaskuntzaren kalitatea, hezkuntz elkarte osoarena dena, eta gaitze-biderako sarreran bereizkeria baztertzea, egitasmoaren doakotasunari indar emanez.

Etxebizitzari dagokionez, egoeraren oso igarbide onetik abiatuz, gure iritziz, irtenbide eta ekimen berriei ekiten zaie, etxebizitza-mota bat baztertutako taldeentzako salneurri eskurakoian jartzea denez; zenbatekoen

ble a los segmentos discriminados, focalizando las actuaciones; personalizar los mecanismos e instrumentos de ayuda, que se incrementarán en cantidad y calidad; abordando la compleja situación del mercado desde todos los vectores de incidencia; estableciendo controles de construcción que estabilizarán precios y contemplando la actuación interinstitucional en toda su magnitud.

El programa presentado por el candidato nos parece también, en el Partido Nacionalista Vasco, un programa centrado en la solidaridad. Solidaridad entre los ciudadanos; solidaridad respecto a las otras Comunidades. A este respecto, todas las baterías e instrumentos de actuación de la Administración vasca en este periodo están -y la lectura detallada de los acuerdos sectoriales lo muestra- destinados a reducir la desigualdad, a asistir a los marginados y desaventajados, a quebrar la concepción sociológica propia de economías desarrolladas que hablan de la sociedad de los tres tercios.

Y esto se hace en este programa desde los instrumentos que la acción de gobierno proporciona. De un lado el sistema fiscal, acentuando sus mecanismos redistributivos a través de la lucha contra el fraude. De otro, el gasto público, todo el gasto público instrumentado en sus políticas sectoriales, sometido a un quíntuple objetivo: asistir a los desaventajados en programas pioneros en todo el Estado -qué lejos queda, señorías, la polémica de si hay que dar pez o enseñar a pescar, ¿se acuerdan?-, propiciar la ausencia de discriminación por razón de sexo y conocimiento (gratuidad de la enseñanza, plan de acción positiva para la mujer), incentivar y garantizar los procesos de igualdad de oportunidades, garantizar la universalidad de las prestaciones públicas del tipo que sean, sanitarias y educativas, y en general mejorar la eficiencia de funcionamiento de todo el sector público.

Por todo eso que meridianamente se desprende de la lectura del programa y del discurso del candidato, nos parece un programa de solidaridad.

También nos parece un programa de lealtad y un programa rabiosamente estatutista. Estatutista porque asienta sus posicionamientos políticos y sus desarrollos y actuaciones en el Estatuto como espacio común de autogobierno y de encuentro entre todos los vascos. Porque lo que se postula como temas pendientes de desarrollo estatutario son, de un lado, simplemente enunciados, excepto en un primer principio de modelación de interpretación en el tema de Seguridad Social, donde la solidaridad y la unicidad del sistema están garantizados. Que en cualquier caso requerirán el máximo consenso interno previo en esta Cámara, y que finalmente no están presididos más que por un único objetivo: la necesidad de producir su transferencia para poder mejor resolver los problemas de los ciudadanos vascos. ¿O alguien puede hoy rebatir que la transferencia del INEM permitirá realizar una política de formación y empleo más integral y eficaz que la realizada hasta ahora? ¿Se puede justificar el rechazo sistemático a esa transferencia si no se contradice esa realidad evidente? Ése es el sentido de más competencias, señor Oreja, el del cumplimiento de la legalidad y el del incremento del bienestar. Y yo estoy seguro de que en ese terreno del razonamiento podremos coincidir.

También es un programa de lealtad y de colaboración. De lealtad y colaboración en primer lugar con la Administración central. Si alguien cree que este Gobierno va a retomar la política de confrontación gratuita, expresión sesgada de un victimismo estéril, se equivoca rotundamente. La lealtad, la confianza mutua y el consenso van a presidir las relaciones con la Administración central, luego algunas tentaciones parecen alejadas.

eta kalitatearen aldetik gehituko diren laguntza-bideak eta tresnak pertsonez hornituz; eraginpeko alor guztietatik merkatuaren egoera zailari ekinez; salneurriak mugatuko dituzten eraikuntza-kontrolak ezarriz eta erakundearteko ihardunа bere osotasunean aztertuz.

Lehendakarigaiak aurkeztutako programa, Euzko Alderdi Jeltzalean, elkartasunean finkatutako programa iruditzen zaigu. Herritarren arteko elkartasuna; beste Elkarteekiko elkartasuna. Honi dagokionez, euskal Administrazioaren ihardute-tresneria eta tresna guztiak aldi honetan -eta alorkako akordioen irakurketa zehatzak erakusten du- ezberdintasuna gutxitzera, baztertuak eta atzeratuak soroztera, hiru herenen gizarteaz mintzo diren ekonomia aurreratuen ikuskera soziologikoa haustera bideratzen dira.

Eta programa honetan gobernuaren ihardunak eskaintzen dituen tresnen bidez egiten da hau. Alde batetik zerga-sistima, iruzurraren aurkako borrokaren bidez bere birbanatze-moduak azpimarratuz. Bestalde, herri-gastua, bere alorkako politiketan gauzatutako herri-gastu guztia, bost helbururen menpe dagoena: Estatu osoko programa berrietan atzeratuak soroztea -zein urruti dagoen, jaun-andreak, arraina eman ala arrantzuan irakatsi behar ote den eztabaida, gogoratzen al duzue?-, sexu eta ezagupenen araberako bereizkeria baztertzea (irakaskuntzaren doakotasuna, emakumearen aldeko hobarizko ihardunerako egitamua), aukera-berdintasunaren prozesuak bultzatu eta bermatzea, osasun eta hezkuntz mailan, mota guztietako herri-zerbitzuen orokortasuna ziurtatzea eta, orohar, herri-alor osoaren ihardunaren eraginkortasuna bermatzea.

Programa irakurriz eta lehendakarigariaren hitzaldia entzun ondoren ulertzen den guzti horrengatik, elkartasunezko programa deritzogu.

Leialtasunezko programa eta benetan programa estatutuzalea iruditzen zaigu ere. Estatutuzalea, bere jarrera politikoak eta bere garapenak eta ihardunak Estatutuan finkatzen dituelako, hori bait da burujabetzarako eta biltzeko euskaldunon bateango lekunea. Estatutuan osabideratzeke dauden gaitzat aurkezten direnak, alde batetik, aipatu besterik ez dira egiten, Gizarte-Segurantzaren kasuan salbu, honetan, sistimaren elkartasuna eta bakartasuna ziurtaturik bait daude. Nolanahi ere, aldez aurreko Biltzar honen ahalik eta barne-irizkidetasun zabalena beharko dute, eta helburu bakarra baino ez dute: euskal herritarren arazoak hobeto konpondu ahal izateko horien eskualdaketa bultzatu beharra. Ala, INEM eskualdatzeak orain arte egindakoa baino gaitze eta lanbide-politika osatuagoa eta egokiagoa egiteko bide emango duela uka dezakeenik ba al dago? Zuritu daiteke aginte-eskuraketa horri behin eta berriz uko egitea ageriko egitate horren aurka ez badoa? Hori da aginpide gehiago horren esangura, Oreja jauna, legeak betetzearena eta ongundea gehitzearena. Eta ni ziur nago, arrazoiketaren arlo horretan batera jarri gaitezkeela.

Leialtasuneko eta elkarlaneko programa ere bada. Aurrena Estatuko Administrazioarekiko leialtasun eta elkartasunekoa. Norbaitek uste badu Gobernu honek berriro borroka borrokagatik delako politikari, biktimismo antzuaren agerbide makurra, helduko diola, oker dabil zeharo. Leialtasunak, elkarrentzako uste onak eta irizkidetasunak gidatuko dituzte Estatuko Administrazioarekiko harremanak, geroz tentazio batzuk urruti-

También es un programa de colaboración no sólo con la Administración central, sino con el resto de Comunidades Autónomas, donde vamos a intercambiar experiencias. Donde esta Comunidad, la primera de constitución en todo el Estado, va a aportar su impronta, sus conocimientos para la definitiva estructuración de un Estado de las Autonomías, en un modelo aún no cerrado y acorde con las exigencias del proceso unificador europeo. Pero, evidentemente, partiendo de un posicionamiento político evidente: una construcción democrática de España es inseparable de la articulación de sus componentes plurales, o, lo que es lo mismo, el Estado democrático habrá de renunciar en España a una pretensión centralizadora.

También es un programa de equilibrio territorial, tanto en la preocupación porque no se establezcan bolsas de desarrollo y procesos norte-sur en ninguno de los territorios como en que el modelo institucional establecido sea el que marca la legalidad vigente: Estatuto, ley de Territorios y leyes derivadas. Que es precisamente el que está establecido, que es el que funciona, que es el que democráticamente existe y se va adaptando en función de las demandas de los ciudadanos y las decisiones democráticas tomadas en los foros correspondientes: Juntas Generales y Parlamento Vasco.

Yo supongo que a estas alturas del proceso de construcción de esta Comunidad -o nacionalidad, que también lo dice el Estatuto- nadie va a dudar de la posición, trabajo, responsabilidad y dedicación del PNV en este sentido. La cuestión es que en el PNV se ha renunciado hace tiempo a imponer, y la construcción institucional de este país, por lo menos en los últimos años dirigidos por el Lehendakari Ardanza, se ha hecho desde el acuerdo mayoritario de las fuerzas políticas, tanto en esta Cámara como en los Gobiernos forales. Y ésa es la verdad y la realidad, y así se va a seguir haciendo. Por eso es lógica y legítima la discrepancia, por eso es sectario y exclusivista hablar de Álava y de los alaveses como a veces se hace: "Los alaveses sienten", "los alaveses piensan..." Aquí estamos veinticinco alaveses, desde el señor Ruiz de Pinedo pasando por los dos Ormazabal y acabando por el señor Barrio, con diferentes sensibilidades, ilusiones y proyectos políticos, tan alaveses unos como otros, y en su capacidad de acuerdo y su respaldo electoral respectivo se encuentra la legitimidad democrática de todas las decisiones que en relación a Álava y a esta Comunidad se vayan tomando.

Finalmente, y en lo que se refiere al programa, es un programa y un proyecto de un solo Gobierno, hacia dentro y hacia fuera, con corresponsabilidad y participación, con un liderazgo reconocido e incentivado, el del Lehendakari; con una asunción política conjunta de lo realizado por cada Departamento, donde la división y la compartimentación no tienen ni tendrán sentido. Donde, con independencia de las responsabilidades políticas de cada Departamento, todo el Gobierno será y va a ser uno en el cumplimiento del programa presentado por el candidato, y donde la ausencia de discrepancias garantiza una lectura conjunta de la acción de gobierno.

Posiblemente para cualquier partido lo hasta aquí manifestado constituyen razones suficientes para emitir un voto favorable. Sin embargo, no es sólo el programa de este futuro Gobierno el que al Partido Nacionalista le gusta, sino la filosofía, las actitudes políticas y sociales que el candidato líder del Gobierno presenta y que son también las actitudes y posicionamientos del Partido Nacionalista Vasco. Permítanme que en breves momentos se lo desarrolle.

koak dirudite.

Estatuko Administrazioarekiko elkarlaneko programa ez ezik, gainerako Autonomi Elkarteekikoa ere bai, hor azturak elkartrukatuko ditugularik. Hor Elkarte honek, Estatu osoan lehenbiziko eratu zena, Autonomi Estatua behin eta betiko egituratzeko, bere aztarna, bere ezaupideak erakutsiko dituelarik, oraindik itxi gabea den eta Europako batasun-bideak behar dituenekin bat datorren ereduan. Baina, argi denez, ageriko jarrera-hartze politiko batetik abiaturik: Espainia demokraziaz eraikitzea ezin bereiz daiteke hura osatzen duten guztiak elkartzetik, edo, berdin bait da, demokraziazko Estatuak nahikeria erdirazaleari uko egin beharko dio Espainian.

Lurralde-orekarako programa ere bada, hala inongo lurraldetan garapen-gunerik eta iparra-hegoa egoerarik ez sortzeagatik duen arduran nola jarritako erakunde-eredua indarrean dauden legeek agindutakoa izatean ere: Estatutuak, Lurraldeen legeak eta ondorengo legeek. Hauxe bait da jarrita dagoena, hauxe bait da dabilena, hauxe bait da demokratikoki duguna eta herritarrek zer eskatzen duten eta dagokien lekuetan, Batzar Nagusietan eta Eusko Legebiltzarrean, zer erabaki demokratiko hartzen diren hala egokituz doana.

Nere ustez, Elkarte -edo nazionalitate, Estatutuak ere bai bait dio hori- honen eraikitze-bidearen tertzio honetan inork ez du zalantzan jarriko EAJk alde honetatik duen jarrera, lana, ardura eta ahalegina. Kontua da EAJn aspaldian uko egin zaiola behartzeari, eta herri honen erakunde mailako eraikuntza, Ardanza Lehendakariak zuzenduriko azkeneko urteetan behintzat, indar politikoen akordio gehiengodunetik egin da, hala Biltzar honetan nola foru-gobernuetan ere. Eta hori da egia eta egitatea, eta horrela egingo da aurrerantzean. Horregatik da berezkoa eta bidezkoa bat ez etortzea, horregatik da alderdikoia eta baztertzailea batzutan hitzegiten den bezala hitzegitea Arabaz eta arabarrez: "Arabarrek uste dute", "arabarrek pentsatzen dute..." Hogeitabost arabar gara hemen, Ruiz de Pinedo jaunagandik hasi, bi Ormazabaldarrekin segi eta Barrio jaunarekin bukatuz, nork bere sentimen, amets eta asmo politikoak dituela, bata bestea bezain arabarra, eta bakoitzaren akordiogaitasunean eta hauteskunde-babespean datza Araba eta Elkarte honi buruz hartzen diren erabaki guztien bidezkotasun demokratikoa.

Azkenik, eta programari dagokionez, Gobernu bakarraren programa eta egitasmoa da, barrurantz eta kanporantz, ardurakidetasun eta partaidetzakikoa, buruzagitza aitortu eta bultzatua duena, Lehendakariarena; Sailburugo bakoitzak egindakoa denen bateango jasotze politikoakikoa, zatiketak eta zatibanaketak inolako lekurik izango ez dutena. Lehendakarigaiak aurkezturiko programa betetzean, Sailburugo bakoitzaren erantzunkizun politikoez kanpo, Gobernu guztia bat izango eta izan behar duena, eta bat ez etortzerik ezak gobernu-ihardunaren bateango irakurkera bermatzen duena.

Beharbada edozein alderdirentzat honaino esandakoa behar besteko arrazoiak dira aldeko botoa emateko. Hala ere, ez da geroko Gobernu honen programa bakarrik Alderdi Jeltzaleak gustokoa duena, baita Gobernuaren lehendakarigaiak aurkeztu eta Euzko Alderdi Jeltzalearen jarrera eta jokaerak ere badiren filosofia, jokaera politiko eta sozialak ere. Zuen baimenaz, labur-labur zehaztuko dizuet.

En primer lugar, para que las cosas queden absolutamente claras, este partido, mayoritario en esta coalición, que apoya al Gobierno que se constituirá, considera que hay que avanzar en el camino de la desaparición de la violencia y de los violentos; que ese avance debe seguir el sendero marcado por el Pacto de Ajuria Enea, que, como se dice en el programa, el Lehendakari y el Gobierno deben gestionar el pacto y avanzar aún más en lo que la mayoría de la sociedad nos demanda. No habrá retrocesos. No tienen cabida las dudas ni las vacilaciones. Los puentes, tendidos, y las reflexiones abiertas.

Porque hay que decirlo muy claro, y lo dijo hace años el hoy candidato a Lehendakari: con la muerte no puede haber ideología que se justifique; con esos medios no existe la comunidad de fines. Porque no hay causa, origen o explicación que justifique hoy que un grupo armado ejerza y practique la lucha armada imponiéndose sobre las decisiones de la mayoría. Ésa es la cuestión central, la de la imposición o la del abandono de la lucha armada.

Porque también hay que decirlo muy alto: cada vez que ETA, aquí o en cualquier lugar del Estado, mata a alguien, civil o militar, niño o mayor, hombre o mujer, está matando un poco de todos nosotros. Muere alguien que nos debe ser querido, porque es alguien que cree en la libertad y en la democracia.

Porque hay que decirlo para que nadie se engañe: ETA, ante todo y sobre todo, va con nosotros los vascos. Es un tema nuestro; la erradicación de la violencia es un asunto que ante todo y sobre todo debe ser resuelto por los vascos. Por eso se acaban las falsedades y se derrumban las caretas. En ese contexto, los que no condenan la violencia de ETA y hablan de coherencia en otros asuntos ("verbi gratia" el Golfo), están expresando un sarcasmo fúnebre. Por ese camino es por donde va a seguir este partido y su candidato.

En segundo lugar, y vayamos también de frente y de cara, con claridad y sin tapujos, como deben ser tratados los temas en esta Cámara: aquí, en este país, ha habido ruido de espadas. Y lo hay cuando desde hace quince días por un partido político se empieza a hablar de frentes, y no de legitimidad democrática y de resultados de negociación, que se dice hoy por primera vez. Porque los frentes dan lugar a las trincheras; las trincheras son antesala de guerras, y las guerras no las quiere nadie. Y además se formula este juicio justo por quien acaba de dejar el anterior Gobierno, todo parece que suscitado por esa perversa ideología, esa imagen de marca que acompaña a los ingenuos partidos que han cometido el error flagrante de formar esta coalición, porque son nacionalistas.

Y a estas formulaciones, que es así como se han percibido por la mayoría de la población, el PNV contesta: que nunca esperen que los miembros del Partido Nacionalista Vasco vayan a hablar de otras ideologías y de otros partidos con el desprecio, el ánimo de estigmatizar y de "guetizar" que está acompañando todas las referencias de los miembros del Partido Socialista dirigidas al nacionalismo. Para más "inri", siendo esta ideología, la nacionalista, mayoritaria en el país al que se refiere.

En segundo lugar, que un partido como el nuestro no sufre una escisión, no lanza un nuevo proyecto, no elabora un nuevo discurso ideológico para luego volverse atrás a la primera de cambio. Ni es inteligente, ni es realista, ni les aseguro que en el Partido Nacionalista

Lehendabizi, gauzak guztiz argi geldi daitezen, alderdi honek, koalizio honetan gehiengoa duena, eratuko den Gobernuari eusten diona, indarkeria eta indarkeriazalerik ez izateko bidean aurrera joan beharra dagoela deritzo; aurrera joate horrek Ajuria-Eneako Ituneak erakutsitako bideari jarraitu behar diola; programan esaten den bezala, Lehendakariak eta Gobernuak itunea bideratu eta gizartearen gehiengoak eskatzen digun horretan are aurrerago joan beharra daukatela. Ez da gibelbiderik izango. Hemen ez dago zalantza eta ezmezerako lekurik. Zubiak, zabaldurik, eta gogoetak zabalik.

Oso argi esan beharra delakoz, eta gaurko lehendakarigaiak aspaldi-aspaldian esan zuen: heriotzarekin ez daiteke zuritzeko moduko pentsaerarik izan; baliabide horiekin ez dago helburu-erkidetasunik. Ez delakoz helburu, sorburu edo arrazoibiderik, gehiengoaren erabakien gainetik jartzen dela ezein talde armadunek borroka armatua balia eraztea eta erabiltzea egun zuritzen duenik. Hortxe dago koska, behartzean edo borroka armatua aldera uztean.

Oso ozen ere esan beharra delakoz: ETAk hemen zein Estatuko edozein lekutan, norbait, zibila zein militarra, txikia zein larria, gizonezkoa zein andrazkoa hiltzen duen aldioro, gu guztion zertxobait ere ari da hiltzen. On-eritzi behar diogun norbait hiltzen da, askatasuna eta demokrazia sinesten duen norbait delakoz.

Inor ez dadin engaina esan beharra delakoz: ETA, oroz gain eta batik bat, gu euskaldunoi dagokigu. Geure arazoa dugu; indarkeria erauztea oroz gain eta batik bat euskaldunok konpondu beharreko arazoa da. Horregatik agortzen dira gezurrak eta erortzen mozorroak. Ingurune horretan, ETAren indarkeria gaitzetsi ez eta beste arazotan (Golkoa, esaterako) egokitasuna aipatzen dutenak, heriozko iskirioa ari dira egiten. Bide horri jarraituko zaio, hortaz, alderdi hau eta haren lehendakarigaia.

Bigarrenez, eta goazen halaber paretik eta aurkez-aurke, garbiki eta estalgarri barik, arazoak Biltzar honetan horrela aztertu behar dira eta; hemen, herri honetan, ezpata-hotsa izan da. Zergatik eta hamabost egun honetan alderdi politiko bat frenteez hitzegiten hasita dagoelako, ez ordea bidezkotasun demokratikoaz eta itunketaren ondorioez, hau lehenbizikoz gaur esaten da eta. Frenteek lubakiak bait dakartzate; lubakiak gerrateen atari dira, eta gerrateak inork ez ditu maite. Eta gainera erizpen hau nork eta lehengo Gobernua utzi berri duenak egiten du, koalizio hau osatzearen oker lotsagarria egin duten alderdi inozoek aldean daramaten pentsaera anker horrek, marka-irudi horrek, eraginik aidenez, abertzale direlako.

Eta esapide hauei, halaxe jaso bait dituzte herritar gehienek, EAJk erantzuten du: ez dezatela inoiz uste izan, Euzko Alderdi Jeltzaleko kideek beste pentsaera batzuez eta beste alderdi batzuez, Alderdi Sozialistak abertzalegoari zuzenduriko aipamen guztiek aldean daramaten erdeinuarekin, laidoztatzeko eta "ghetto bihur erazteko" gogoarekin, hitz egingo dutenik. "Iseka" gehiagorako, pentsaera hau, abertzalea, herri honetan nagusi dugularik gainera.

Bigarrenez, gurea bezalako alderdi batek zatiketa izan, egitasmo berria atera, ideologi mintzaera berria gertatu, ez duela ondoren jo eta berehala atzera bihurtzeko egiten. Hori ez da ez burutsua, ez egitezalea, eta Alderdi Jeltzalean ez litzateke ez demokratikoa ez daite-

sería democrático ni posible. La maduración, el proyecto de integración que propiciamos, la consideración plural de la sociedad y cultura vasca, la no exclusivización de signos y no su separación estricta, son en estos momentos para nosotros tan importantes, definen la línea y el proyecto con que el PNV afronta, con servicio para este país, los próximos años, que constituyen para nosotros tan cosa nuestra como Sabino Arana. ¡Hasta tal punto hemos internalizado este nuevo proyecto'

Porque, para los que hablan desde hace quince días de frentismo, habrá que recordarles también que la composición de los Gobiernos se decide en función de los resultados electorales, y que la capacidad para gobernar con talante de diálogo y cuidadosa atención a la pluralidad social se demuestra en la acción de gobierno. Y que será por los actos de gobierno, y no por prejuicios, despechos o resquemores por no estar en ese Gobierno, por los que el Ejecutivo será juzgado. Que determinadas siglas no son garantía de resultado de pluralidad; que un Gobierno puede tener y hacer práctica desintegradora teniendo la composición más variopinta que pueda imaginarse, mientras otro monocolor obtener resultados integradores y viceversa. Que habrá quedado bien claro que porque nacionalistas y socialistas no gobiernen juntos no se pone fin a una cultura de entendimiento; no es nuestra intención. Porque además tal razonamiento y pretensión no se sostiene. En aplicación de tal criterio, el PSE-PSOE estaría descalificando de un plumazo al Gobierno que su partido tiene en Madrid.

Y porque la impresión política que nosotros tenemos y lo que nos preocupa es el discurso que se empieza a construir por parte del Partido Socialista de Euskadi dirigido a la sociedad vasca. Un discurso beligerante, de rechazo, de división. Parece como si, paralelamente a la evolución ideológica que muchos de los partidos que en esta Cámara estamos experimentando, el PSOE se enquista por estrictas razones electorales y retrocede en la situación y demandas de la sociedad. Me está empezando y nos están empezando a preocupar el frentismo mental que en ustedes empieza a anidar.

En cualquier caso, el posicionamiento del PNV y del Gobierno está claro: apertura, permeabilidad social, pluralidad; lo contrario de compartimentación, clientelismo, defensa de espacios electorales, que eso es lo que parece que ustedes defienden y eso es lo contrario a una sociedad abierta.

Y, en tercer lugar, la actitud evidente en el discurso del candidato, compartida por nuestro partido, es continuar y avanzar por el camino de la cohesión y de la integración social. No es por azar que el candidato dijo en campaña: "No nos interesa ya de dónde ha venido cada cual, sino adónde queremos ir juntos". No son meras cláusulas de estilo todas las referencias que en el programa hay hacia el consenso, hacia la cohesión social, el euskera patrimonio de todos, adecuación a condiciones sociolingüísticas, pluralismo lingüístico, factor enriquecedor... Son convicciones sentidas, actitudes políticas y posicionamientos reales. Porque en el PNV, señor Jáuregui, se tiene claro que las culturas no tienen por qué ser fronteras, aunque hayan venido entendiéndose como tales; que las lenguas son instrumentos de comunicación, y no armas de lucha para marcar diferencias; que todos saldremos ganando con el respeto y desarrollo de la identidad de cada pueblo (esta lección se ha hecho fundamental), y que la identidad no tiene por qué defenderse contra su vecino. Y por esta senda de pluralidad y de ausencia del sectarismo es por la que este Gobierno quiere avanzar, y por la que está avanzando el Partido Nacionalista Vasco.

keena izango, benetan. Bultzatzen dugun heldutzea, elkar hartze-egitasmoa, euskal gizarte eta kultura askotarikotzat begiratzea, zeinuak ez esklusibotzea eta zorrotz ez bereiztea, hain dira orain guretzat garrantzizko, EAJk, herri honen zerbitzutan, datozen urteei aurre egiteko dituen bidea eta egitasmoa hain ondo zehazten dituzte, non guretzat Sabino Arana bezain gure direla. Hara noraino geureganatua dugun egitasmo berri hau'

Zeren, hamabost egun honetan frentismoaz hitzegiten dutenentzat, gogoratu beharko diegu berebat Gobernuaren osakera hauteskundeen ondorioei begira erabakitzen dela, eta elkarrizketarako joerarekin eta gizarte-aniztasunarekiko arreta handiarekin gobernatzeko gaitasuna gobernu-ihardunean egiaztatzen dela. Eta Exekutiboa gobernu-lanengatik, eta ez Gobernu horretan ez izateagatikako kalte, haserre edo gaitzondoengatik, epaituko dutela. Sigla jakin batzuk ez dutela aniztasunezko ondoriorik bermatzen; Gobernu bat ihardunean sakabanatzailea izan daitekeela inoizko osakerarik zabalena izan arren, kolore-bakarreko beste bat bateragarria izan daitekeen bitartean eta alderantziz. Argi asko geratu izango dela abertzaleek eta sozialistek elkarrekin gobernatzen ez dutelako ez zaiola akabera ematen elkar-aditzearen kulturari. Zeren gainera hori esan eta argudiatzeak buru-buztanik ez duen. Irizpide horretaz baliatuz, PSE-PSOEk goitik behera gaitzetsiko luke bere alderdiak Madrilen duen Gobernua.

Eta guk dugun politikazko iritzia eta ardura diguna hauxe delako, Euskadiko Alderdi Sozialista euskal gizarteari zuzendurik moldatzen hasia den mintzaera. Mintzaera oldargarria, arbuiozkoa, zatiketazkoa. Badirudi, Biltzar honetako alderdi asko izaten ari garen pentsaerazko bilakaerarekin parean, PSOE hauteskunde-arrazoi soilengatik enkistatu eta gizartearen egoera eta eskakizunetan atzera egiten duela edo. Kezkatzen hasia zait eta kezkatzen hasia zaigu zuengan errotzen hasitako gogoaren frentismoa.

Nolanahi ere den, EAJren eta Gobernuaren jarrera argi da: irekitzea, gizarte-irazkortasuna, aniztasuna; zatibanaketaren, babespekokeriaren, hauteskunde-eremuen aldezpenaren alderantzizkoa, antza denez horixe bait duzue zuek aldezten eta horixe bait da gizarte irekiaren alderantzizkoa.

Eta, hirugarrenik, lehendakarigaiaren hitzaldiari darionez, joera, horrekin gure taldea bat dator, gizartean elkartasuna eta bateangotasuna lortzeko bideari jarraitu eta horretan aurrera egitekoa da. Ez zuen lehendakarigaiak hauteskunde-ekitaldian honako hau halabeharrez esan: "Bakoitza nondik datorren jakitea ez da gure arazoa, batera nora joan nahi dugun bai ordea". Irizkidetasunari, gizarte-elkartasunari, euskera denon ondarea izateari, gizarte-hizkuntzazko baldintzei egokitzeari, hizkuntza-auniztasunari, alderdi aberasgarriari buruz egindako aipamen guztiak ez dira esate-modu hutsak... Zinezko sinesteak dira, benetako politika-jokaerak eta jarrerak. Izan ere EAJri dagokionez, Jáuregui jauna, argi eta garbi dago kulturak ez dutela nahitaez mugak izan behar, horrela ulertuak izan badira ere; hizkuntzak elkarrizketako baliapideak direla, eta ez bereizkeriak finkatzeko tresnak; herri bakoitzaren nortasuna hedatuz eta horri men eginez denok irabaziko dugula (ikasgai hau funtsezkoa bihurtu da), eta norberaren nortasuna aldezteko ez dagoela lagun hurkoaren aurka egin beharrik. Eta auniztasun eta bereizkeriarik gabeko bidetik egin nahi du Gobernu honek aurrera, eta hortik dihardu Euzko Alderdi Jeltzaleak.

Y finalmente, en cuarto lugar, del discurso del candidato y de la posición del Partido Nacionalista Vasco sí que también puede colegirse la apuesta por el desenvolvimiento y actuación dentro del ordenamiento jurídico vigente, el escrupuloso respeto a la democracia profunda y a las pulsiones de la sociedad a las que se dirige el Gobierno. Los tiempos y las urgencias presentes no son amigos de ninguna aventura.

Finalmente, los compromisos que evidencia este Gobierno y este candidato son los del Partido Nacionalista Vasco: compromisos de comportamiento político presididos por el fomento del pluralismo de la sociedad vasca, la práctica del consenso como regla de oro de actuación, el afianzamiento y asimilación de la tolerancia como médula de la convivencia, la aceptación de la crítica como instrumento imprescindible de reflexión, y, finalmente, la creencia en la fuerza del diálogo como método para realizar y construir una sociedad cohesionada. Por eso, ahí nos vamos a poder encontrar los grupos que apostemos por el acuerdo. Por ese camino vamos a seguir avanzando, y no tengan duda algunos de que nos vamos a encontrar.

Estimo, señorías, que en lo que hasta ahora me llevan escuchando habrán al menos encontrado razones suficientes para comprender -no tanto para compartirlas razones por las que el Partido Nacionalista Vasco, y yo en su nombre, vamos a prestar nuestro voto al candidato a Lehendakari José Antonio Ardanza y nuestro apoyo al Gobierno que tendrá la responsabilidad de dirigir y formar. Pero esto no lo es todo, o al menos, para nosotros, no lo es todo en su integridad.

El Partido Nacionalista Vasco va a dar su voto y otorgar su confianza al candidato a Lehendakari porque se trata de la persona de José Antonio Ardanza. Y es el momento de hablar de personas. Hablar de personas es hablar de talantes, de estilos, de caracteres, de capacidades, de talla humana en suma. Porque, no nos engañemos, son las personas las que encarnan y llevan adelante los proyectos, y todos sabemos la importancia que tienen. Y para nosotros, en el Partido Nacionalista Vasco, don José Antonio Ardanza es la persona idónea para dirigir el País Vasco.

Como alguien dijo, José Antonio Ardanza ha sido y es un Lehendakari al que nadie le ha regalado nada, hecho a sí mismo, honesto, trabajador, conciliador e integrador. Una persona al que yo en nombre de mi partido hoy quiero hacer justicia.

Hoy vamos a votar en el PNV a José Antonio Ardanza porque es un magnífico presente, y porque el futuro se llama José Antonio Ardanza. Muchas gracias.

El Sr. **PRESIDENTE**: Muchas gracias, señor Ollora.

Legebiltzar-taldeei erantzuna emateko Lehendakarigaia da hizpidearen jabe.

Tiene la palabra el candidato a Lehendakari para responder a los grupos parlamentarios.

El Sr. **ARDANZA GARRO**: Eskerrik asko berriz, Lehendakari jauna, legebiltzarkideok. Voy a ir o voy a tratar de dar respuesta uno a uno a todos los grupos que han intervenido, aunque evidentemente no voy a dar respuesta a los grupos que han intervenido a mi favor, sino a los grupos que han intervenido en contra.

Eta, azkenik, laugarrenik, lehendakarigaiaren hitzalditik eta Euzko Alderdi Jeltzalearen jarreratik indarrean dauden legeen arabera ihardutea, benetako demokraziari eta gizartearen taupadei begirune hertsia izatearen aldekoa dela ere atera daiteke. Oraingo presak eta denborak ez doaz menturarekin bat.

Azkenik, Gobernu honek eta lehendakarigai honek azaldutako hitzemateak Euzko Alderdi Jeltzalearenak dira: euskal gizartearen auniztasuna sustatzea helburu nagusitzat duten politika-jokaerako hitzemateak, ihardunneko goreneko arautzat irizkidetasuna lortzea, elkarbizitzarako funtsezkotzat etorkortasunaz jabetzea eta hori indartzea, gogapeneko nahitaezko baliapidetzat gaitzespena onartzea eta, azkenik, gizartean elkartasuna lortzeko bidetzat elkarrizketaren indarra onartzea. Beraz, hitzarmenaren alde gauden taldeok hor aurkitu ahal izango gara. Bide horretatik egingo dugu aurrera eta hor aurkituko gara zalantzarik gabe.

...Biderapena bete duzu, eta zure helburua iristeko behar dituzun boto horiek izango dituzu. Halere, ez dituzu Unidad Alavesa-ko arabarron botoak izango. Baina zerbait ziurtatzen dizut, zu bizi zaren herriko arabarrek, gaur entzuten diguten horiek, ez zaituztela zure hitzengatik epaituko, zure egintzengatik baizik. Eta, hori gutxi ez balitz, Unidad Alavesa-k zure erabakiak arretaz kontrolatuko dituela ziurtatzen dizut, jakin dezazun.

Gaur gauean, atseden hartzeko presta zaitezenean, idazle euskalduna eta mundu mailan ezaguna denaren liburua irakurtzea gomendatzen dizut, "El laberinto vasco", hain zuzen, Julio Caro Barojarena, eta honako idazki honi kontu egin diezaiozula: "Ez hizkuntza, ez ohiturak, ez legeak, ez zientzia ezarri daitezke indarraren bidez, ezta politikazko erabaki demokratikoen bidez ere". Eskerrik asko.

**LEHENDAKARI** jaunak: Eskerrik asko, Añúa jauna.

Tiene la palabra el representante de Euskadiko Ezkerra.

AULESTIA URRUTIA jaunak: Señor presidente. Hara, nere ustez, eztabaidan zehar egiaztatu denez, egokia zen goizean lehendakarigaiak berak eta arratsaldean beste eskuhartzaile batzuk politika-alorreko arazoen gainekoa izan den eta gehiengo hau, koalizio hau, politikoki bermatzen eta horrela programari buruzko eztabaida izan zitekeen eta izan ez denari eusten ahalegindu den eztabaida honi eman diogun nondik norakoa.

Gobernu honen aurkezpenak oztopo bat izan duelako, hain zuzen, izan zitekeen eta ez da izan programari buruzko eztabaida; oztopo hori astetan zehar, azken egunetan zehar, Gobernu hau, eratu baino lehen, irteerako ments batekin, hau da, gizarte-bidezkotasunaren mentsarekin jartzen ahalegindu nahi izatea izan da, eta oraindik ere bidezkotasuna kendu nahi diote gizarte mailan Gobernu honi. Beraz, egokia zen politika-eztabaida eta ni beldur naiz politika-eztabaida hau oraindik ere beharrezkoa ote den, eta espero dut Osoko Bilkura hau amaitutakoan ez dela artean ere beharrezkoa izango.

Gobernua, eratu baino lehen, ments horrekin jartzea zen kontua, eta, nere ustez, beharrezkoa da Gobernu hau Legebiltzar honetan egiaztatzea. Eta horrela egingo da lehendakarigaiaren bozketarekin, baina nik uste garrantzizkoa dela esatea, baiestea, koalizio hau zeren eta irizkidetasun-giroaren ume dugula, denon artean herri honetan azken urteetan antolatu dugun elkar aditze-giroarena, alegia. Eta, are gehiago, herri honetan eta azken urteetan oinarrizko irizkidetasunik sortu izan ez bagenu, Ajuria Eneako Hitzarmenetik beretik aurrera bereziki, eta Biltzar honetako alderdi guztiok elkar aditzen hasi izan ez bagina, askotan garrantzizko legeak, garrantzizko proposamenak, ia ahobatez bozkatuz, Gobernu hau ezinezkoa izango zela. Zertan esan ere ez irizkidetasun-giro honen ume dela, eta irizkidetasun-giroa izan delako nik uste inork ezin beldur eraz dezakeela gizarte hau, abertzale esparrukotzat jotzen diren, baina, zalantza barik, pentsaeraren arloan bestelako bideak edo sentimenak izan dituzten alderdien arteko oraingo honetako akordioa berezko deritzon gizartea, alegia.

ectorias o de sensibilidades distintas en el terreno ideológico.

Es un Gobierno plural, que va a contar, y cuenta ya, con un programa común, y es una coalición hija, fruto precisamente de ese clima de consenso. Y quien trate de desplazar a esta coalición y a su programa del espacio común que ese clima de consenso nos da, del que todos nos beneficiamos, está incurriendo sencillamente en exclusivismo y en intransigencia. Ésa es la intransigencia y el exclusivismo que yo mismo les echaba en cara a quienes han provocado esta situación y han exigido un debate político antes que programático.

Se ha acusado a este programa y a la coalición que lo sustenta de nacionalismo puro y duro. Pues, bien, yo lo único duro que conozco aquí en esta Cámara, pero especialmente en la política vasca, es lo que representa quien le ha precedido en el uso de la palabra, señor Jáuregui. Y si desde luego se trata de descalificar, porque ésa es la intención, se trata de descalificar un programa como nacionalista puro y duro, porque contempla en su desarrollo la necesidad de ampliar el marco estatutario según el propio texto estatutario, podemos llegar a la siguiente conclusión, y es que quien niega la necesidad de contemplar en ese programa precisamente aspectos relativos estrictamente al desarrollo estatutario contemplados en el texto estatutario no está manteniendo una actitud no nacionalista, sino también una actitud nacionalista pura y dura, esta vez de signo contrario.

Y creo que es importante introducir, en este Parlamento y a esta hora, en este momento esta cuestión, porque me da la impresión de que, a tenor de lo que ha manifestado el señor Jáuregui, y sobre todo a tenor de lo que fueron las conversaciones en que yo por lo menos tuve la oportunidad de participar en una ocasión, no hay no nacionalismo en la posición del Partido Socialista, no hay no nacionalismo, sino en todo caso un nacionalismo de signo contrario. Podemos entrar en ese debate, aunque a mí me gustaría que el debate se ciñera a cuestiones estatutarias o no estatutarias, al desarrollo o no del propio Estatuto. Pero si además consideramos que lo único legítimo en este país es que los acuerdos se establezcan entre lo que se considera el nacionalismo y lo que se considera el no nacionalismo, creo que estamos equivocándonos, y sobre todo creo que estamos equivocando a la opinión pública. Porque la ciudadanía tiene muchas maneras de expresarse, y creo que no todos los ciudadanos están dispuestos a ser encasillados, a ser compartimentados por opciones ideológicas que, si están presentes en el debate de hoy o en las descalificaciones transmitidas a través de los medios de comunicación, desde luego me da la impresión de que no es por ahí por donde respira la sociedad.

Usted y yo, señor Jáuregui, tenemos una suerte y una pequeña ventaja para poder comunicarnos: nos hemos criado en las mismas calles, en la misma plaza, entre los mismos amigos y los mismos vecinos, y seguimos viviendo en un mismo país. El país es uno, las calles siguen siendo más o menos parecidas a las que conocimos en nuestra niñez o en nuestra juventud, pero, sin duda, sin duda, hay un prisma que, yo me temo, puede separarse en exceso. Y espero que nunca sea irreversible esa separación.

Entiendo yo que esta sociedad, ni es compartimentada, ni es compartimentable. Entiendo que esta sociedad se mueve más por sus propias necesidades que por el impulso de los prejuicios ideológicos. Y entiendo que precisamente por eso es fácilmente legitimable socialmente este Gobierno. Pero, ahora bien, si de lo que

Askotariko Gobernua da, bateango programa izango duena, baduena, eta zeren eta irizkidetasun-giro horren ume, fruitu den koalizioa da. Eta koalizio hau eta haren programa irizkidetasun-giro horrek, denoi mesede egiten digu eta, ematen digun bateango eremutik lekutu nahi duenak, egia esateko bakarkeria eta hertsikeria erakusten du. Horra nik neuk egoera hau eragin duten eta programarekiko barik politikarekiko eztabaida nahi zutenei aurpegira botatzen nien hertsikeria eta bakarkeria.

Programa honi eta hari eusten dion koalizioari abertzaletasun huts eta gogorraren salaketa egotzi zaio. Alabaina, nik hemen Biltzar honetan, baina euskal politikan bereziki, ezagutzen dudan gogortasun bakarra zuk baino lehen hitz egin duenak ordezkatzen duena da, Jáuregui jauna. Eta jakina kontua gaitzestea baldin bada, asmoa horixe da eta, kontua, bere garapenean Estatutuaren esparrua Estatutuak berak dioenari jarraiki zabaldu beharra ohartematen duelako, programa abertzale huts eta gogortzat jo eta gaitzestea baldin bada, honako ondorio honetara iritsi gaitezke, hau da, Estatutuaren idazkeran ohartemandako Estatutuaren garapenari buruzkoak baino ez diren alderdiak, programa honetan hain zuzen, oharteman beharra ukatzen duenak ez duela abertzalea ez den jokaera bakarrik erakusten, jokaera abertzale huts eta gogorra ere erakusten du, aldez bestekoa oraingo honetan.

Eta Legebiltzar honetan eta ordu honetan, une honetan, auzi hau sartzea garrantzizkoa dela uste dut, gogoak ematen bait dit, Jáuregui jaunak esan duenari begira, eta batez ere nik behin behintzat eskuhartzeko aukera izan nuen elkarrizketak izan zirenari begira, Alderdi Sozialistaren jarreran ez dago ez-abertzaletasunik, ez dago ez-abertzaletasunik, izatekotan ere aldez besteko abertzaletasuna baizik. Eztabaida horretan sar gaitezke, nahiz eta nik nahiago izan eztabaida Estatutuari buruzkoak diren edo ez diren gaietara, Estatutua bera garatu edo ez garatzera, mugatuko balitz. Baina herri honetan bidezkoa den bakarra akordioak abertzaletasuntzat jotzen denaren eta ez-abertzaletasuntzat jotzen denaren artean egitea dela uste badugu gainera, oker gabiltzala uste dut, eta jendearen iritzia okertzen gabiltzala uste dut batez ere. Herritarrek zer uste duten esateko bide asko bait dituzte, eta, nere ustez, herritar guztiak ez daude ideologi aukeraka sailkatuak edo zatibanakatuak izateko prest, bada ideologi aukera horiek, gaurko eztabaidan edo komunikabideen bitartez zabaldutako gaitzespenetan ageri badira ere, jakina, nere iritziz, gizarteak ez du hori pentsatzen.

Zuk eta biok, Jáuregui jauna, suerte bat eta alde on txiki bat badugu elkarrekin harremana izateko: kale beretan hazi gara, plaza berean, lagun beren eta auzo beren artean, eta herri berean bizitzen jarraitzen dugu. Herria bat da, kaleak geure haurtzaroan edo geure gaztaroan ezagutu genituenen antzeko samarrak dira oraindik, baina, duda barik, duda barik, bada prisma bat larregi aldendu daitekeela beldur naizena. Eta aldentze hori inoiz ez dela atzeraezina izango espero dut.

Nere iritziz, gizarte hau ez da zatibanakatua eta ez da zatibanakagarria. Nere iritziz, gizarte hau gehiago mugitzen da bere premiengatik berengatik ideologi aurreritziek bultzaturik baino. Eta, nere iritziz, horretxegatik da erraz aintzakotzeko modukoa gizarte mailan Gobernu hau. Baina, alabaina, kontua norberaren beldu-

se trata es de trasladar los temores de cada cual a la opinión pública, y trasladarlos además exageradamente, evidentemente es un juego enormemente imprudente, es un juego, en todo caso, de cuyas consecuencias negativas se tendrá que responsabilizar quien asuma ese principio que usted ha enunciado como un recurso justo: trasladar a la sociedad sus propios temores.

Y a mí me parece que, sobre todo, aquí tenemos que asumir el compromiso todos, porque no hay Gobierno, por muy mayoritario que sea, que sea capaz de asumir el compromiso de gobierno si hay un grupo parlamentario, dos o tres, que desde lados o ángulos distintos de la Cámara y del panorama político y social de Euskadi traten de amedrentar cada uno a una parte de la sociedad. No hay quien gobierne un país en esas condiciones. Y, desde luego, ya tenemos un grupo que amedrenta suficientemente a la sociedad, como para que tengamos que contemplar cuatro años futuros con otro amedrentando en este caso a otra parte, a una supuesta otra parte de la sociedad.

Pero yo estoy convencido de que... Usted ha mencionado a los círculos empresariales y financieros; yo podría extender la relación a cualquier forma de organización de la sociedad civil: yo creo que la sociedad está respirando de otra manera, y de una manera desde luego no temerosa con lo que este Gobierno pueda hacer. Entre otras cosas porque, además de suponer que todas esas organizaciones o sectores se mueven desde la tolerancia y el respeto escrupulosos a la legitimidad democrática de cualquier Gobierno, y éste lo es o lo será, desde luego tienen un mínimo sentido de la realidad. Y saben todos esos sectores que los próximos cuatro años va a haber un Gobierno, y no otro. Y que va a tener que contar con un Gobierno con una mayoría, con una nueva mayoría, y no con otra. Y que por tanto vamos a tener que aunar todos (sociedad, partidos políticos, instituciones) los esfuerzos en una misma dirección.

Todos estamos interesados en que esto se normalice, y agradezco en ese sentido las palabras del señor Mayor Oreja, porque me parece que es importante que todos nos comprometamos a disipar los temores cuando son infundados, a no generar más problemas de los que tiene esta sociedad, y, en definitiva, en todo caso, a ceñirnos al estricto debate político, a la estricta discrepancia política. A mí me parece que amedrentar es malo, es malo, absolutamente peligroso, pero sobre todo es injusto que aquí se saque el tema de los perfiles lingüísticos, después de haber aprobado muy recientemente una ley de la Función Pública que los consigna como obligatorios para todas aquellas personas que tengan que servir precisamente a la Función Pública o al interés público.

Usted ha calificado, ha llegado a calificar este programa como conservador. Yo lo niego, y no voy a seguir en la discusión porque ni siquiera ha mencionado por qué es conservador, o por lo menos no le ha dado tiempo para desarrollarlo. Y voy a terminar con algo que usted ha comentado en medio de su intervención. Ha hecho una mención al Gobierno, a los partidos, y en especial ha hecho una mención al mío, al que aquí represento. Ha dicho que este partido está en estos momentos experimentando un debate, una crisis en su sentido positivo, y yo se lo reconozco y además agradezco que así lo comente, porque los partidos, todos, tenemos necesidad de reflexionar, y todos estamos, por lo menos ustedes y nosotros, en un proceso precongresual. Nosotros lo tendremos la semana que viene, y ustedes a finales de mes.

Bien, nosotros asumimos la necesidad de esa re-

rrak jendearen iritzira aldatzea baldin bada, eta gehiegikeriaz aldatzea gainera, duda barik ikaragarri joko buruarina da, eta, dena den, haren ondorio kaltegarriak zuk baliabide zuzen gisa aipatu duzun oinarri hori, nork bere beldurrak gizartera aldatzea, hain zuzen, nork bereganatzen duen, hark beharko ditu bere gain hartu.

Eta, nere irudiz, hemen, batez ere, denok behar dugu betebehar hori jaso, ez bait da Gobernurik, nahi bezain gehiengoduna dela, gobernatzeko betebeharra bereganatzeko gauza denik baldin legebiltzar-talde batek, edo bik, edo hiruk, Biltzarraren eta Euskadiko ikuspegi politiko eta sozialaren alde edo alderdi desberdinetatik bakoitzak gizartearen zati bat beldur erazi nahi badu. Ez da inongo herririk goberna dezakeenik egoera horretan. Eta, jakina, badugu talde bat gizartea asko beldur erazten duena, hurrengo lau urteak beste bat oraingoan beste zati bat, gizartearen ustezko beste zati bat, beldur erazten pasa beharrik izan gabe.

Baina ni sinetsirik nago... Enpresari eta finantza-inguruak aipatu dituzu zuk; aipamena herri-gizartearen edozein erakunde-motatara zabal nezake nik: nik uste gizarteak beste moduz pentsatzen duela, eta ez hargatik beldurturik Gobernu honek egin dezakeenarekin. Besteak beste zeren, erakunde edo jende-alde guzti horiek edozein Gobernuren demokraziazko bidezkotasunarekiko onarpen eta begirune zorrotzetik mugitzen direla uste izateaz gain, eta hau halakoa da edo halakoa izango da, errealitatea apur bat hautematen bait dute noski. Eta jende-alde guzti horiek badakite datozen lau urteetan Gobernu bat, ez beste, izango dela. Eta gehiengo bat, gehiengo berri bat, ez beste, duen Gobernu batekin kontatu beharko duela. Eta beraz denok (gizarteak, alderdi politikoek, erakundeek) ahaleginak bide batera batu beharko ditugula.

Denoi axola digu hau normaltzeak, eta eskertu egiten ditut alde horretatik Mayor Oreja jaunaren hitzak, zeren, nere irudiz, garrantzizkoa bait da denok geure buruak honetara behartzea: funsgabekoak badira beldurrak sakabanatzera, gizarte honek dituen baino arazo gehiago ez sortzera, eta, azken batez, dena den, eztabaida politiko hutsera, bat ez etortze politiko hutsera mugatzera. Beldur eraztea txarra dela deritzot, txarra dela, arriskutsua ikaragarri, baina batez ere bidegabea da hemen hizkuntz eskakizunen gaia ateratzea, hain zuzen ere Funtzio Publikoaren edo guztien zuduaren zerbitzuko ihardun behar duten guztientzat nahitaezkotzat begiratzen dituen Funtzio Publikorako legea aresti-arestian onartu ostean.

Programa hau kontserbazaletzat jo duzu, horraino iritsi zara. Ezetz diot nik, eta bertan behera utziko dut eztabaida hau zergatik den kontserbazalea aipatu ere ez bait duzu egin, edo ez duzu hori azaltzeko betarik izan behintzat. Eta zuk zeure eskuhartzearen erdian esan duzun zerbaitekin amaituko dut. Gobernua aipatu duzu, alderdiak, eta nerea aipatu duzu batez ere, hemen ordezkatzen dudana. Esan duzu alderdi hau eztabaida bat, larrialdi bat honen zentzu baikorrean, izaten ari dela orain, eta nik hori aitortu eta gainera eskertu egiten dizut zuk horrela esatea, zeren alderdiok, denok, gogartu beharra bait daukagu, eta denok ari bait gara, zuek eta gu behintzat, biltzar nagusia prestatzen. Guk datorren astean izango dugu, eta zuek hilaren bukaeran.

Hara, gogarpen hori egin beharra onartzen dugu

flexión, y estoy seguro de que vamos a aportar después del congreso un elemento más sólido, más cohesionado, más fuerte, al país y en concreto al propio Gobierno. Pero yo les aconsejaría que, siendo ustedes un partido que hizo la precampaña desde el socialismo vasquista, la campaña desde el antinacionalismo, y han terminado negociando el programa desde actitudes distantes respecto al reconocimiento y al desarrollo estatutario, también hagan su propia reflexión, porque creo que a todos nos vendrá bien. Muchas gracias.

El Sr. PRESIDENTE: Muchas gracias, señor Aulestia.

Tiene la palabra a continuación el representante del Grupo Popular.

El Sr. MAYOR OREJA: Señor Presidente, señoras y señores parlamentarios, unas breves reflexiones para fijar la posición del Partido Popular, no sólo del grupo político, de su posición en este debate de investidura, sino también para fijar su posición en el momento político que vive el conjunto de nuestra Comunidad.

Y lo tenemos que introducir con una frase que hemos utilizado muchas veces en la campaña electoral, y por eso mismo la volvemos a utilizar aquí, que es la palabra "normalización". ¿Cómo podemos ayudar a la normalización del país? Ésa es la pregunta que hoy se hace este Partido Popular renovado, este centro-derecha vasco, que tiene indudablemente una obsesión en contribuir de esa manera a la convivencia en este país.

Y primero hay que decir que en este debate se avanza en la normalización si nadie se rasga las vestiduras por las actitudes de los demás. Evidentemente, hay que superar el tránsito de un Gobierno, de una combinación de Gobierno, a otro Gobierno bien diferente. Pues, bien, normalizar es superar el tránsito desde la discrepancia o desde la coincidencia. No hay que rasgarse, y lo he dicho esta mañana, o esta tarde, al principio de la tarde, por la composición del Gobierno, no hay que rasgarse las vestiduras; pero tampoco hay que rasgarse las vestiduras por la preocupación legítimamente expuesta en la tarde de hoy por la oposición en sus distintos grados, en sus distintas facetas.

No hay que rasgarse las vestiduras por la composición del Gobierno, y no se puede aceptar que porque este Gobierno esté en el país las inversiones extranjeras o de otro tipo van a disminuir en este país. No se puede ni siquiera enunciar una formulación de esta naturaleza. Primero porque es falso. Porque, por muy importantes que se crean los Consejeros del Gobierno, por muy importantes que se crean los partidos, las decisiones de inversiones extranjeras o de inversiones en este país, en nuestra opinión, no podemos caer en la tentación ni en el riesgo de pensar que es que vienen porque haya una fórmula u otra de Gobierno. Seamos más prudentes en esa aseveración.

Pero, evidentemente, también sería falso decir que no es posible estar preocupados, los partidos que no somos nacionalistas, por el Gobierno que ustedes han formado, por otras razones. Y tenemos una experiencia. Yo recuerdo la constitución del Gobierno Rubial, y yo recuerdo las afirmaciones que se hicieron en aquel momento en que hubo un acuerdo entre Unión del Centro Democrático y el Partido Socialista en aquella combinación de Gobierno. Y es evidente que no es un lujo que hoy los portavoces de algunos grupos traslademos preocupaciones y riesgos, porque lo vemos evidenciado en el seno de la sociedad vasca. Porque hay un profesorado

guk, eta ziur nago biltzar nagusiaren ondoren, herriari eta zehazkiro Gobernuari berari, osagai sendoagoa, elkartuagoa, indartsuagoa, ekarriko diogula. Baina nik kontseilu hau emango nizueke: zuek kanpaina-aurrea sozialismo euskaltzaletik egin, kanpaina abertzaletasunaren aurka, eta azkenean programa ituntzekoan Estatutua aintzat hartze eta garatzeari dagokionez urrutiko jarrerak dituzuela amaitu duzuen alderdia zaretenez, zerorien gogarpena egin dezazuela alegia, denoi ondo etorriko zaigula uste bait dut. Eskerrik asko.

LEHENDAKARI jaunak: Eskerrik asko, Aulestia jauna.

Popular Taldeko ordezkaria da hizpidearen jabe.

MAYOR OREJA jaunak: Lehendakari jauna, legebiltzarkide jaun-andreok, gogarpentxo batzu Partido Popular-en jarrera finkatzeko, talde politikoarena, izendapen-eztabaida honetako jarrera ez ezik, gure Elkarteak bere osoan bizi duen une politikoarekiko bere jarrera finkatzeko.

Eta hauteskunde-ekitaldian askotan erabilitako esaldi batekin hasiko gara, eta horrengatik berriz ere erabiliko dugu, hots, "normalizazio" hitza. Nola lagun diezaiokegu herriaren normalizazioari? Hau da berritutako Partido Popular honek gaur egiten duen galdera, euskal erdi-eskuin honek herri honen elkarbizitzari horrela lagunduko dion zalantzarik gabeko iduripena bait du.

Eta lehenengo eta behin esan behar da eztabaida honi dagokionez besteen jarrerengatikjantzirik inork ez urratzea dela normalizazioan aurrera egiteko bidea. Argi eta garbi dago Gobernu batetik, Gobernu baten osatze-modutik, beste Gobernu erabat ezberdinerako igarobidea gainditu egin behar dela. Honela bada, normalizatzea bat ez etortzetik edo bat etortzetik igarobidea gainditzea da. Ez dago jantzirik urratu beharrik, eta esan dut gaur goizean, edo gaur arratsaldean, lehenengo orduan, Gobernuaren osaketa dela eta, ez dago jantzirik urratu beharrik; baina ez dago jantzirik urratu beharrik ere aurkaritzak alor ezberdinei buruz bere bidezko kezka azaltzeagatik.

Gobernuaren osaketa dela eta ez dago jantzirik urratu beharrik, eta onartezina da herrian Gobernu hau izanik atzerriko edo gainontzeko dirubideketak herri honetan gutxitzea. Horrelako adierazkerarik egiterik ere ez dago. Lehenik, gezurra delako. Izan ere Gobernuko Sailburuek euren buruak oso garrantzitsutzat hartu arren, alderdiek euren buruak oso garrantzitsutzat hartu arren, herri honetan diruezarketak edo atzerriko diruezarketak egiteko erabakiak, gure ustez, ezinezkoa da horrela pentsatzea, ez daude Gobernu bati edo besteari loturik. Hori esan aurretik pentsatu beharra dago.

Baina, argi dagoenez, abertzale ez garen alderdiok, osatu duzuen Gobernua dela eta, beste arrazoi batzu barne, kezkatu beharrik ez dagoela esatea gezurra litzateke. Eta zerbait ikusitakorik badugu. Rubial Gobernuaren osaketaz oroitzen naiz, eta une hartan egindako baieztapenez oroitzen naiz, Unión de Centro Democrático eta Alderdi Sozialistaren arteko hitzarmena izan zelarik Gobernu osaketa hartan. Eta gaur talde batzuren ordezkariek kezka eta arriskuak azaltzea ez dut gehiegikeria denik uste, izan ere hori gizartean ikusi ahal izan bait dugu. Oso kezkaturiko irakaslegoa dagoelako; herri honetan euskaldun ez diren eremu asko daudelako

que está especialmente preocupado; porque hay muchas zonas no vascoparlantes en el país donde están preocupados por un Gobierno y lo que pueda hacer en los próximos meses. Hay una preocupación, y yo entiendo que desde otras perspectivas hay otra sensibilidad distinta, pero no se puede, no se puede tampoco, "a priori", hacer un planteamiento de que la oposición viene a crear un frente, sin más.

Hay preocupaciones reales y que tienen fundamento, y es que, si no, no existiría el problema vasco; no existiría. Y el problema vasco, repito, no es un problema entre nacionalistas. Fundamentalmente el problema vasco se ha producido siempre entre los vascos con unas sensibilidades nacionalistas o no, en función de la adscripción a España, en función de un gran planteamiento marco de dónde debía estar encuadrado el país.

Es evidente, "normalización" es el concepto clave, y en nuestra opinión nosotros tenemos que hacer un esfuerzo en lo que entiende una opción de centro-derecha que es normalizar el país, que es que la sociedad asuma más protagonismo. Es decir, que las "vendettas" o los problemas entre los partidos no estén acaparando la vida social; que sean los problemas de la sociedad los que condicionen más la actividad de los partidos. Pero la devolución del protagonismo de la sociedad se enumera, pero nunca no hay políticas concretas. Nunca lo he visto, y en este programa tampoco hay.

A lo mejor para mí una devolución del protagonismo a la sociedad es realmente introducir una política familiar seria; es realmente, como antes decía, disminuir nuestra presencia en la vida social los partidos; es practicar una política inteligente de exenciones fiscales en nuestra Comunidad... ¿Por qué no? ¡Eso es devolver protagonismo a la sociedad, favorecer el ahorro privado en este país' Eso es, y eso es lo que en mi opinión normalizaría más la sociedad, porque la sociedad, pienso, es más así que sobre grandes estructuras de partidos y grandes órganos de coordinación. Yo creo que así no es el país.

Y es evidente que definitivamente normalizar es sacudirnos de una ola que ha invadido el país durante estos últimos años y que ha sido la acción armada. Que el daño de ETA -yo no sé si se dan cuenta incluso los que favorecen a la organización de ETA-, yo no sé si se dan cuenta, es la sacudida en el mundo cultural, en la cultura, en las conciencias, en la normalidad que en un pueblo es la utilización de la violencia por la violencia. Los daños físicos son dramáticos, y yo he tenido ocasión de sufrirlos próximamente, y probablemente los miembros de Herri Batasuna también. Pero el daño cultural que están provocando en las conciencias de este país ha sido enorme, y puede ser lo más grave del fenómeno, y dentro de treinta o cuarenta años no se entenderá nunca por qué se ha producido esta situación en este país. Pues, bien, normalizar es sacudirnos, hacer ese esfuerzo de sacudirnos esas consecuencias dañinas.

Segundo, la oposición del Partido Popular. Sobre la oposición del Partido Popular, en primer lugar quiero subrayar que nosotros no queremos "a priori" determinar nuestra oposición. A nosotros la composición y el programa nos han colocado en la oposición. Pero nosotros no seremos una oposición "sandwich". Nosotros no tendremos la obsesión de si tenemos que estar en la mitad entre el Partido Socialista y el Partido Nacionalista Vasco y su Gobierno. No, ésa no será la posición del Partido Popular. El Partido Popular dirá lo que tenga que decir en cada tema de acuerdo a nuestras convicciones, y de acuerdo también con la suerte que en estos

Gobernu honetaz eta beronek datozen hilabeteetan egin dezakeenaz oso kezkaturik daudenak. Kezka badago, eta nere ustez beste ikuspuntu batzuetatik sentiera ezberdina dago, baina ezinezkoa da, ezinezkoa da ere, "a priori", aurkaritza aurre egitera datorrela esatea, besterik gabe.

Benetako kezkak daude eta funtsezkoak direnak, izan ere, bestela, ez legoke euskal arazorik. Eta euskal arazoa, berriz diot, ez da abertzaleen arteko arazoa. Funtsean euskal arazoa beti sortu da euskal gizartean abertzale diren edo ez direnen artean, Espainiarekiko atxikipena dela eta, herri honek kokatu behar lukeeneko ingurunea dela eta.

Argi dagoenez, "normalizazioa" da giltzarria eta, gure ustez, herria normalizatzeari buruz erdi-eskuinaren aukerari dagokionez ahalegina egin beharra daukagu, herriak eskuhartze handiagoa izateari dagokionez, alegia. Hau da, "vendettek" edo alderdien arteko arazoek ez dezatela arreta gehiegirik eurenganatu; alderdien ihardunа batez ere gizartearen arazoek baldintza dezatela. Baina gizarteari eskuhartzea bihurtzea aipatu egiten da, baina inoiz politika zehatzik jarri gabe. Ez dut inoiz ikusi, eta programa honetan ere ez dago.

Agian gizarteari eskuhartzeko aukera gehiago ematea famili politika serio bat benetan ezartzea da; benetan, lehen nioenez, alderdiok gizartean gure egotea gutxitzea da; gure Elkartean zergarik ezari buruz ondo egindako politika... Zergatik ez? Hori gizarteari lehentasuna ematea da, herri honetan norbanako-jabetzapeko diru-aurreratzearen alde egitea da' Hori da, eta hori da, nere ustez, gizartea gehiago normalizatuko lukeena, izan ere gizartea, nere ustez, horri datxekio era zabalagoan alderdien egitura zabalei eta erakideketa-sail haundiei baino. Nere ustez herria ez da horrelakoa.

Eta jakina behin-betirako normalizatzeak azken urteotan eraso egin digun indarra, ekintza armatua gugandik baztertzea eskatzen digu. ETAk egindako kaltea -nik ez dakit konturatzen diren ETAren alde daudenak ere-, nik ez dakit konturatzen diren, kultura-arloari emandako astindua da, kulturan, kontzientzietan, herri batean bortxakeria bortxakeria delako bakarrik erabiltzea deneko normaltasunean. Gauzazko kalteak bildurgarriak dira, eta hurbiletik jasateko aukera izan dut, eta agian Herri Batasunako kideek ere bai. Baina kultura-arloan egiten ari diren kaltea herri honetan izugarria izan da, eta ekintza honen gauzarik larriena izan daiteke eta hemendik hogeitamar edo berrogei urtetara herri honetan egoera hori izan denik ulertezina izango da. Bada, normalizatzea ondorio kaltegarri horiek astintzea da, horiek astintzeko ahalegina egitea da.

Bigarrenik, Partido Popular-en aurkaritza. Partido Popular-en aurkaritzari buruz, lehenengo eta behin guk ez dugula "a priori" gure aurkaritza zehaztu nahi adierazi nahi dut garbi. Osaketak eta programak aurkaritzan jarri gaituzte. Baina gu ez gara "sandwich" gisako aurkaritza izango. Gure kezka ez da Alderdi Sozialistaren eta Euzko Alderdi Jeltzalearen artean eta honen Gobernuaren artean izan behar garenentz. Ez, ez da hori Partido Popular-en jarrera. Partido Popular-ek une bakoitzean esan behar duena esango du gure iritziaren arabera, eta Euskal Herrian gorakada garrantzitsua izateko izan dugun zorionaren arabera ere bai, gure sines-

momentos tenemos de haber tenido un crecimiento importante en el País Vasco, que nos da el crecimiento suficiente como para que actuemos con plena independencia desde nuestras convicciones y haciendo lo que pensamos es mejor para el conjunto de la sociedad vasca. En ocasiones a lo mejor somos la oposición más dura de esta Cámara, y en otras ocasiones somos el partido que quiere favorecer y que quiere hacer que esa imagen de frentismo desaparezca pronto en nuestra Comunidad.

Yo al señor Jáuregui... No suele ser muy usual que hagamos comentarios de oposición a oposición, pero yo sí le rogaría... Ustedes no son la oposición; ustedes son la oposición más importante. En este país no solamente hay una fórmula de gobierno entre nacionalistas y socialistas, o la de nacionalistas. No; hay otras fórmulas. Yo le ruego, le ruego... Porque es que a mí, que no conozco el entresijo de las negociaciones, en su intervención la sensación de monopolizar una idea de oposición me ha preocupado. Hay varias maneras de hacer oposición; hay varias fórmulas de incorporar sensibilidades no nacionalistas al Gobierno de este país y a esos acuerdos, y no sólo desde la perspectiva socialista. Con lo cual yo creo que eso es importante también que nosotros lo tengamos claro.

No sacralicemos tampoco las palabras. A mí me parece que cuando sacralizamos tanto el frentismo, y cuando sacralizamos una etapa u otra con palabras, nos estamos equivocando. Porque muchas veces resulta que en el periodo más estable del país, que han sido los últimos cuatro años, resulta que a nivel parlamentario se ha introducido el factor de distorsión de concepto más grave desde el comienzo de la aprobación del Estatuto, que fue el derecho de autodeterminación. Con lo cual no me parece que debiéramos sacralizar exageradamente.

¿Conservadores y progresistas en el Gobierno? No lo sé. Evidentemente, a mí me parece que, si hay un punto de referencia en Europa, yo sé que el Partido Nacionalista Vasco, que forma parte del Partido Popular Europeo, de la Internacional Popular Europea, ha hecho un acuerdo con unos partidos que están en el Grupo Arco Iris. Yo no sé si eso es ser un partido más conservador. A mí me parece que en la fórmula entre grupos que forman parte de ese Arco Iris y el Grupo Popular no me parece que el resultado sea una fórmula estrictamente conservadora. Yo reconozco que me parece más bien que el Partido Nacionalista Vasco, para no variar, desde el comienzo de la democracia ha mirado a su izquierda para hacer el programa de gobierno.

Y por último, en cuanto al desarrollo estatutario, simplemente recordarle como un último punto concreto. El Estatuto de Autonomía, sin duda ninguna, sirve si nos une a los vascos; si la autonomía sirve para enfrentar y fragmentar esta sociedad no es útil, no sirve absolutamente para nada. Y ése será el espíritu del partido. Y nosotros queremos separar claramente lo que es una idea de un partido de lo que significa un texto legal de referencia. No es lo mismo, y hay que tener un enorme cuidado de decir que "es que ese texto no me gusta porque no es constitucional o no es estatutario", a no tener el valor de decir "no interesa, porque en este punto y en este otro punto no concuerda con los intereses de mi opción política". Y nosotros trataremos de hacer ese esfuerzo, que es diferenciar lo que significa lealmente una aplicación del Estatuto de acuerdo con una lealtad constitucional y estatutaria, de lo que significan intereses de partido en la adecuación de ese desarrollo.

Termino. Al final queda la gran pregunta: este Gobierno, ¿se adecua o no a los objetivos que ha enumerado el Lehendakari Ardanza? A mí me parece que

teekin erabateko askatasunean eta orohar euskal gizartearentzat onena zer den kontutan izanik aritzeko behar hainbateko gehikuntza lortu dugula. Batzutan agian Legebiltzar honetako aurkaritzarik gogorrena izango gara eta bestetan gure Elkartetik frentismo irudi hori kentzen saiatuko den alderdia izango gara.

Jáuregui jaunari nik... Aurkaritza batek besteari aipamenik egitea ohizkoa ez bada ere, esan nahi nioke... Zuek ez zarete aurkaritza, zuek aurkaritzarik garrantzitsuena zarete. Herri honetan dagoen gobernu-bide bakarra ez da abertzaleen eta sozialisten artekoa, edo abertzaleen artekoa. Ez; badira beste bide batzu. Nik eskatzen dizut, eskatzen dizut... Izan ere hitzarmen-bidearen barrunbea ezagutzen ez dudala, zuri entzun ondoren aurkaritza dena zuenganatzeko ideia horrek kezkatu egin nau. Aurkaritza egiteko bide asko daude; abertzale ez diren sentierak herri honetako Gobernuan eta akordio hauetan ezartzeko bide ezberdinak daude, eta ez bakarrik sozialisten ikuspuntutik. Beraz, garrantzitsua da nere ustez guk ere gauzak argi eta garbi izatea.

Ez ditzagun hitzak ere sakratu bihurtu. Neri iruditzen zaidanez frentismoa horren sakratu bihurtzen dugunean, eta ekinaldi bata edo bestea hitzekin sakralizatu dugunean, oker ari gara. Izan ere askotan gertatzen ohi denez, herri baten aldirik iraunkorrenean, eta hala izan dira azken lau urteok, Legebiltzar mailan Estatutua onartu zenetik ezarritako bihurrikagarririk larriena sartu bait da, hots, burujabetza-eskubidea. Beraz, ez dut gehiegi sakralizatu behar genukeenik uste.

Iraunzaleak eta aurrerakoiak Gobernuan? Ez dakit. Jakina, Europara jotzen badugu erreferentzi bila Euzko Alderdi Jeltzaleak, Europako Alderdi Herrikoiko, Europako Herrikoien Nazioarteko kide denak "Ortzadar" Taldean dauden alderdi batzurekin akordioak egin ditu. Nik ez dakit hori alderdi iraunzaleagoa izatea denentz. Ortzadar eta Talde Herrikoia osatzen duten taldeen arteko bideari ez deritzot hertsiki iraunzalea denik. Nere ustez, Euzko Alderdi Jeltzaleak, betikoari jarraitzearren, demokraziaren hasieratik gobernu-programa egiteko orduan bere ezkerrera begiratu du.

Eta azkenik, Estatutuaren garapenari dagokionez, azken gai zehatz bat soil-soilik oroitarazi. Autonomi Estatutua, zalantzarik gabe, euskal biztanlegoa biltzeko gai den heinean da baliagarri; autonomiak gizarte hau aurrez-aurre jarri eta banatzen badu ez du balio, ez du ezertarako balio. Eta hori izango da alderdiaren gogoa. Eta guk alderdi baten asmoa eta erreferentzi lege baten esanahia argi eta garbi banatu nahi ditugu. Ez da gauza bera, eta kontu haundia izan behar da "izan ere lege hau ez dut atsegin Konstituzioaren aurkakoa delako edo Estatutuaren aurkakoa delako" esatea eta, "ez du balio, nere aukera politikoaren zuduekin puntu honetan eta beste puntu honetan bat ez datorrelako" esateko balorerik ez izatea. Eta ahalegin hori egiten saiatuko gara, Konstituzioarekiko eta Estatutuarekiko leialtasunean Estatutuaren erabilpenaren esanahiaren eta garapen hori egokitzeari lotutako alderdi-zuduen esanahiaren arteko ezberdintasunak benetan azpimarratzen.

Bukatzera noa. Funtsean galderarik garrantzitsuena: Gobernu hau, Ardanza Lehendakariak zehaztutako helburuak lortzeko egokiena al da? Eztabaidan

en el transcurso del debate no hay especiales motivos para un mayor optimismo. Tampoco quiero decir que para un mayor pesimismo. Pero yo todavía creo que no se han producido las fórmulas mejores para la gobernabilidad de este país. Y por eso el Partido Popular reitera, desde ese planteamiento constructivo, nuestra disponibilidad de colaborar en la normalización de esta sociedad. Muchas gracias.

El Sr. **PRESIDENTE**: Muchas gracias, señor Mayor Oreja.

Eusko Alkartasunako ordezkariak du hitza.

El Sr. **GARAIKOETXEA URRIZA**: Señor Presidente, queridos colegas. No quiero ser reiterativo repitiendo cosas que se han dicho aquí a otras tantas que también se han repetido con frecuencia. Pero telegráficamente voy a referir algunas de las que, por fuerza, me obligan a algún tipo de réplica.

Se ha reiterado que se ha elegido el camino más difícil, que el futuro de este Gobierno es más o menos enigmático, etcétera, etcétera. Bueno, aunque sea reiterativo, este Gobierno cumple con la lógica que todo Gobierno, especialmente cuando hay que hacer una coalición, debe seguir: buscar un respaldo parlamentario y social suficiente, y tratar de encontrar la mayor cohesión posible como consecuencia de las afinidades o la capacidad de cohonestar programas. Y aquí, por lo visto, hay que invertir esa lógica. Yo creo que en todo el mundo la lógica que funciona es la que yo estoy indicando. Y, desde luego, resulta cuando menos pintoresco escuchar a algunos partidos, a los que por ejemplo Eusko Alkartasuna supera en un 50 por ciento de representación parlamentaria, que hablen de debilidad de los que componemos este Gobierno. Es una pequeña desvergüenza política, perdónenme el exceso verbal.

Dejando estas cuestiones menores a un lado, se han dicho aquí cosas más serias, y entre ellas el señor representante de Herri Batasuna ha hablado de que no somos abertzales, que somos sumisos, interesados, que el desmantelamiento lo vamos a garantizar, el desmantelamiento industrial, etcétera, etcétera. Yo esperaba que no se hubieran repetido aquí esta colección de tópicos y se hubieran dicho cosas nuevas, pero yo tendré que repetir también algo que hemos dicho muchas veces. Si aquí se ha producido un desmantelamiento y hay algo que nos encamina hacia la ruina, es el desmantelamiento de estos doce años, que a la hora de proyectar una imagen de este país hacia quien tiene que traer aquí progreso, inversión, tecnología, etcétera, están proyectando ustedes. Si hay alguna sumisión, como ya se ha apuntado antes por el candidato, es la de ustedes a los designios de quienes ustedes saben. Y si hay algún interés, ya que ustedes hablan de gente interesada, no hay peor interés, no hay gente más interesada que aquella que se refugia en el sectarismo de sus propias ideas para tratar de adjudicarlas a la totalidad de la sociedad. Por cierto, ese sectarismo por el que ustedes buscan en exclusiva la resolución de los problemas de este país es el que impide que pueda haber un consenso más amplio y, desde luego, desde una perspectiva nacionalista más amplio, para buscar determinado tipo de metas propias de nacionalistas.

Se ha hablado de que este Parlamento es parte de este país, y se ha tratado de vituperar a quienes estamos aquí. A mí no me habrán oído hablar con ese reduccionismo por el que se habla de Euskadi cuando se habla de la Comunidad Autónoma vasca, y me oirán hablar de Comunidad Autónoma vasca. Yo soy navarro, y sé

ikusi ahal izan denez ez dago arrazoi berezirik oso baikor izateko. Ez dut esan nahi ezkor izateko ere. Baina herri hau gobernatzeko biderik onenak ez direla oraindik aurkitu uste dut. Eta horregatik, Popular Alderdiak, aurkezpen egikor horretatik, gizarte honen normalkuntzan laguntza emateko prest gaudela adierazten du berriro. Mila esker.

**LEHENDAKARI** jaunak: Eskerrik asko, Mayor Oreja jauna.

Tiene la palabra el representante de Eusko Alkartasuna.

**GARAIKOETXEA URRIZA** jaunak: Lehendakari jauna, legebiltzarkide maiteok. Ez dut sarritan esandako gauzei buruz beste hainbatetan esan diren gauzak esanez errepikatzaile gertatu nahi. Baina oso labur-labur zenbait aipatu behar dut, nahitaez nolabaiteko ihardespena egitera derrigortzen nautenak, hain zuzen.

Behin eta berriz, biderik zailena aukeratu dela esan da, Gobernu honen etorkizuna gutxi gorabehera iragarriezina dela esan da, eta abar, eta abar. Beno, gauzak errepikatzea bada ere, Gobernu honek edozein Gobernuk, batez ere koalizioa egin beharrean dagoenean, jarraitu beharreko logikari men egiten dio: legebiltzar eta gizarte mailan behar hainbateko laguntza bilatzea, eta berdintasunen ondoriozko ahalik eta egokitasun handiena edo programak egokitzeko ahalmena bilatzen saiatzea. Eta hemen, dirudienez, zenbait alderdiri, batez ere Eusko Alkartasunak legebiltzar-ordezkotzaren ehuneko 50ez irabazten dien horiei, Gobernu hau osatzen dugunon ahultasunaz mintzatzen entzutea barregarria gertatzen da. Politikako lotsagabekeriatxoa da, eta barka hitz gogorregia bada.

Bigarren mailako arazo hauek alde batera utziz, gauza serioagoak esan dira hemen, eta horien artean, Herri Batasunaren ordezkariak gure abertzaletasunik eza aipatu du, mendekoak, interesatuak garela esan du, ezabapena bermatuko dugula, industri ezabapena, eta abar, eta abar. Nik espero nuen ez zirela betiko gauza hauek esango eta gauza berriak esango zirela, baina nik ere askotan esan ohi dugun zerbait errepikatu beharko dut. Hemen ezabapenik gertatu bada eta hondamendira garamatzan zerbait baldin badago, hamabi urte hauetako ezabapena da, aurrerapena, diruezarpena, teknologia eta abar ekarri behar dituenari herri honetako irudia eman behar zaionean zuek erakusten diozuena. Menpetasunik badago, lehendakarigaiak lehen esan duenez, zuena da, zuek dakizuen horrekiko menpetasuna. Eta interesik baldin badago, jende interesatua aipatzen bait duzue, gizartearen osotasunari ideia berberak leporatu nahian, bere ideien alderdikerian babesten denaren interesa baino okerragorik ez dago, eta horiek baino interesatuagoa denik ere ez dago. Hain zuzen ere, herri honetako arazoen irtenbidea bilatzeko ezartzen duzuen alderdikeria hori da irizkidetasun zabalagoari bidea ixten diona.

Legebiltzar hau herri honen zatia delakoaz ere hitz egin da eta hemen gaudenak gaitzesteko ahalegina egin da. Neri ez didazue euskal Autonomi Elkarteari buruz hitz egiterakoan agertzen den murrizketarekin hitzegiten entzungo, eta euskal Autonomi Elkarteari buruz hitz egiten entzungo didazue. Ni nafarra naiz, eta Nafa-

el problema que están generando ustedes en Navarra, cuando como consecuencia de su estrategia van creando un muro impenetrable en aquella sociedad. Y ustedes se autocomplacen en el gran gueto en el que se mueven, pero impiden que todo lo que signifique vasquismo, o signifique simplemente la noble idea que de lo vasco ha existido allí en muchos ámbitos en el pasado, pueda penetrar en ese muro impenetrable que ustedes han creado con su estrategia. Y, desde luego, yo no les he oído hablar a ustedes de Iparralde cuando han estado aquí. Ustedes por lo menos no han mencionado o no han propuesto, como hemos propuesto algunos en un programa, que se intensifique nuestra relación y se vaya a una aproximación política, cultural, económica, sociológica con Iparralde. ¡Claro, es su pragmatismo' El pragmatismo de algo que hay que cuidar, por lo que todos sabemos. Pero ustedes ponen el listón del pragmatismo allá donde les conviene; el pragmatismo de los demás es naturalmente el que no aprueban.

La paz, dicen ustedes, no puede asentarse en lo que es una situación de imposiciones, la imposición del Estado que nosotros aceptamos. Miren, aunque aceptáramos a efectos dialécticos la autenticidad de esa afirmación, aquí -lo hemos dicho muchas veces, pero no es ocioso repetirlo- ha habido una mayoría de esta Comunidad que, por esos pragmatismos que ustedes emplean a su manera, naturalmente, por las razones que sean, explicadas nuestras respectivas ópticas y puntos de vista, ha elegido un camino. Y los únicos que quieren imponer algo son ustedes a los demás, porque lo normal es que la mayoría imponga el marco que ha elegido. Y, desde luego, no hay peor género de imposición, como he evocado en mi intervención anterior, que la vulneración sistemática de los derechos humanos, ante la que ustedes no se rebelan, como no se han rebelado esta mañana. Y, si me permiten también un pequeño exceso verbal, hablar del Golfo aquí me induce a decir que es difícil contemplar una mayor golfería política que ese cartel que ustedes ponen, con su paloma de la paz rompiendo un misil.

puesta a darle un margen de confianza a ese Gobierno". Se dijo entonces. Yo no he dicho nada de eso. Yo he dicho cosas mucho más tenues, creo que más constructivas, incluso creo que más serias. Y, sin embargo, de contrario se nos pone absolutamente de "chupa de dómine" -perdonen la expresión-, por hacer una crítica política que yo considero legítima, señorías, y perdonen la vehemencia.

Nosotros, cuando expresamos temores no expresamos, o lo creemos por lo menos así, sólo nuestros temores. Creemos interpretar, como todo el mundo, señor Aulestia, de alguna manera la sociedad en la que uno vive. Yo quiero decir que cuando expresamos temores o preocupaciones, o desconfianzas, etcétera, creemos conectar con un sentimiento de una parte de la población. Pero, si ustedes me dicen que estoy amedrentando a la sociedad, yo me pregunto si tengo derecho a criticar; si, por el contrario, su réplica no significa que me quieren amordazar a no decir nada. Yo creo que tengo derecho a poder hacer una expresión y una reclamación de sentimientos que percibo, como todo el mundo, con sus errores, con las dificultades de percepción. Pero no es, creo yo, solamente la cultura socialista o la expresión de los cuatro que dirigen un partido lo que yo trato de expresar aquí; quiero ser un poco más ambicioso en esos objetivos.

Por tanto, la cuestión que se nos plantea como objeto de discrepancia fundamental no es ni siquiera la composición del Gobierno, ni siquiera una cuestión que usted también citaba de manera reiterada, cual era que no había habido propuesta ninguna o posibilidad alguna para desarrollar el Estatuto. Contesto de esta manera a una reflexión que también me ha hecho el señor candidato y que en el tono de respeto que me merece, y que, por cierto, me plantea también a mí, señor Ardanza, una misma dificultad en nuestra dialéctica obligada y necesaria probablemente a partir de ahora, pero en ese tono de respeto quiero decirle que tengo la necesidad de transmitir políticamente el criterio de que el Partido Socialista no discrepa con este Gobierno fundamentalmente en lo que pueda llamarse desarrollo estatutario. No. Yo creo que cuando hablamos de estas cuestiones -no es lo fundamental, evidentemente hay más cosas-, cuando hablamos de estas cosas, yo quiero plantearles la conveniencia de que no discutamos en términos tan descalificativos de una parte para la otra, porque, repito, nuestro compromiso con el Estatuto es un compromiso absolutamente firme, incuestionable, y yo no creo que sea bueno que nos lancemos críticas tan descalificatorias sobre estos temas entre nosotros.

Yo he tenido en mi intervención creo que una actuación suave y tenue en ese apartado. Pero es verdad que se ha planteado una discusión política, que yo creo que conviene trasladar a la opinión pública ahora ya nuestra visión. Se nos dice, de una manera, repito, muy agresiva, que no conviene políticamente para el país, que los socialistas consideramos acabado el Estatuto, y nosotros hemos dicho de nuestra parte que ustedes plantean reivindicaciones maximalistas. Yo creo que hay una oportunidad para que podamos trasladar a la opinión pública una imagen a modo de "test". Yo no voy a recordar a ustedes, señorías, bueno, lo que decíamos unos y otros en el año 80. Ha dicho algo ahora el señor Elosua, pero, en todo caso, yo no voy a recordar lo que decía el PNV en el año 80, o en el 77, en sus programas económicos o sobre otras cosas. Yo creo que no es un buen procedimiento. Yo creo que todo el mundo tiene perfecto derecho a tener unas determinadas evoluciones, y yo quiero, como prueba mejor para examinar quién tiene razón en lo que ha pasado con la reivindicación estatutaria, plantearles el siguiente "test".

dago Gobernu honi konfiantza-mailarik emateko prest". Orduan esan zen. Nik ez dut halakorik esan. Gauza askoz apalagoak esan ditut nik, egikorragoak, nik uste, serioagoak ere bazirela uste dut. Eta, halere, nik bidezkotzat daukadan kritika politikoa egiteagatik, jaun-andreak, kristorenak eta bi esaten dizkigute -zilegi bekit esatemodua-, eta barkatu nere oldarkeria.

Guk, beldurrak azaltzen ditugunean ez ditugu, edo gutxienez horrela uste dugu, gure beldurrak soilik azaltzen. Horrelakoetan, guztioi gertatzen zaigunez, bizi garen gizarteko egoera azaltzen dugula uste dugu. Nik esan nahi nuke, beldurrak edo kezkak, edo susmoak, eta abar azaltzen ditugunean, biztanlegoaren zati baten sentimenduari lotzen gatzaizkiola uste dugula, alegia. Baina, gizartea beldurtzen ari naizela esaten badidazue, gaitzespena egiteko eskubidea ote dudan galdetzen diot nere buruari; zuen ihardespenak, bestalde, deus ez esatera derrigortu nahi nauzuela esan nahi ez ote duen. Somatzen ditudan sentimenduen azalpena eta eskaera egin ditzakedala uste dut, guztiok egin dezakegun bezela, akats eta guzti, somatzeko arazo eta guzti. Baina hemen adierazten saiatzen naizena ez da, nik uste, sozialisten kultura edo alderdi bat zuzentzen duten lauren adierazpen hutsa; helburu horiei piskat gehiago eskatu nahi diet.

Hortaz, hemen funtsezko bat ez etortzearen gai bezala aurkezten zaiguna ez datza Gobernuaren osakeran, ezta zuk ere etengabe aipatzen zenuen arazoan ere, Estatutua garatzeko proposamenik edo aukerarik egon ez zelakoa, alegia. Era honetan lehendakarigaiak ere azaldu didan hausnarketari erantzungo diot, berari zor diodan begirunezko mintzaeraz, eta hain zuzen, neri ere, Ardanza jauna, une honetatik aurrera ziur asko beharrezko eta nahitaezko izango den dialektikan zailtasun bera sortzen dit, baina begirunezko mintzaera horretan esan nahi dizut politika mailan adierazi beharra daukadala Alderdi Sozialistaren Gobernu honekiko funtsezko bat ez etortzea ez datzala Estatutuaren garapenean. Ez. Nik uste, arazo hauetaz mintzatzen garenean -funtsezkoena ez da hori, gauza gehiago ere badago, nabarmena denez-, gauza hauetaz mintzatzen garenean, elkarrekiko hain esatemodu zorrotzak ez erabiltzea proposatu nahi dizuet, izan ere, berriro diot, Estatutuarekiko gure hitzematea erabat sendoa, zalantzarik gabekoa bait da, eta gure artean gai hauei buruzko hain gaitzespen zorrotzak erabiltzea ona denik ez dut uste.

Zati honi buruzko nere eskuhartzea apala eta xaloa izan da. Baina eztabaida politikoa aurkeztu dela egia da, eta herri-iritziari gure ikuspegia azaldu behar zaiola uste dut. Esan zaigu, oso era oldarkorrean, berriro diot, herriari ez zaiola politikoki horrelakorik komeni, sozialistek Estatutua amaitutzat jotzen dugula, eta gure aldetik gehienera jotzeko eskabideak egiten dituzuela esan dugu. Nere ustez herri-iritziari "test" itxurako irudia aurkezteko aukera badago. Ez dizuet gogoratuko, jaun-andreak, beno, 80. urtean bai batzuk zein besteok esaten genuena. Elosua jaunak zerbait esan du orain, baina, nolanahi ere, nik ez dut EAJk 80. urtean, edo 77. urtean, bere ekonomi egitarauetan edo beste gauza batzuri buruz esaten zuena gogoratuko. Ez dut uste bide zuzena denik. Edozeinek aurrera jo eta aldatzeko eskubidea duela uste dut, eta nik, Estatutuari buruzko eskabidearekin gertatutakoari dagokionez zuzen ari dena zein den aztertu ahal izateko, ondorengo "test" hau aurkeztu nahi dizuet.

Hace cuatro años, cuando se intentó hacer un Gobierno PSOE-EA-Euskadiko Ezkerra no hubo acuerdo. En aquella ocasión, todo el mundo lo recordará, se planteó un problema similar al que se ha planteado ahora: una serie de interpretaciones sobre determinadas disposiciones del Estatuto provocaron en aquella ocasión nuestro desacuerdo con Euskadiko Ezkerra y con EA. Pactamos después con el PNV; los de EA pusieron a los del PNV con todo tipo de críticas por lo que era una dejación de sus postulados. El Partido Nacionalista Vasco contestó entonces que las interpretaciones de EA eran irreales y maximalistas, y cuatro años después la negociación del Estatuto o del pacto de gobierno plantea esas mismas cosas, el Partido Nacionalista Vasco impone una determinada interpretación que el señor Garaikoetxea insiste en decir "esto es lo que decíamos nosotros hace cuatro años", y en dos días de negociación -para otras cosas, porque ahí no se introduce ninguna modificación- se aprueba el texto planteado por PNV y Euskadiko Ezkerra. ¿Quién tenía razón?

Más cosas. Hay una observación por nuestra parte respecto a lo que es el contenido del programa. Es verdad que no hemos podido hablar tanto como hubiéramos querido respecto a las características del programa. Tendremos tiempo de poder hacerlo, que quede claro; tendremos tiempo. Pero yo quiero expresarles que nuestra discrepancia en relación con el programa no es sólo ni principalmente, como decía antes, por cuestiones estatutarias. Nosotros, por ejemplo, no compartimos esa idea que configura el eje vertebral de su proyecto cultural dirigido a la construcción de la nación vasca. No compartimos el concepto de integración, cuando se dice que hay que asumir sentimentalmente los símbolos y las formas del país, porque yo creo que es una intromisión en la intimidad de los ciudadanos. Nosotros no estamos de acuerdo con que se planteen dos perfiles lingüísticos en la docencia, porque, aunque haya una ley de la Función Pública, todo el mundo sabe que en las negociaciones con el PNV sobre euskaldunización del profesorado el Partido Socialista defendía cinco perfiles, no dos. Porque comprendíamos que dos perfiles era una situación de imposición segura, por mucho plazo que se dé en el establecimiento de dos perfiles, uno de los cuales, el más bajo, contempla la necesidad de la comunicación con la comunidad escolar en euskera.

A nosotros nos preocupa que un sistema educativo que en este momento se llama modelo A, y que permite que muchos padres en el País Vasco eduquen a sus hijos en castellano o en un idioma extranjero y aprendan euskera, nos preocupa que ese modelo no vuelva a existir. Porque es verdad que se dice que hay que graduar las medidas, etcétera, pero la pretensión del programa de gobierno en esta materia es que todos los niños acaben sabiendo euskera y se revisen los modelos. Y yo estoy de acuerdo con que los niños aprendan euskera a la hora de acabar la EGB y que sepan euskera, y si el modelo A no funciona bien, que se corrija; pero me preocupa extraordinariamente la posibilidad de que se establezca impositivamente la educación en euskera a los niños cuya familia es castellanoparlante, siendo eso, como es, un problema pedagógico de tamaño natural. Nos preocupa eso.

Y cuando hablamos de euskera, señor candidato, permítame que le exprese al final una idea que yo creo que lo resume todo. Usted lo ha dicho y tiene razón: es un problemas delicado, complicado, etcétera...

El Sr. **PRESIDENTE**: Señor Jáuregui, vaya finalizando.

Orain lau urte direla, PSOE-EA-Euskadiko Ezkerra Gobernua osatzeko ahalegina egin zenean, ez zen akordiorik iritsi. Orduan, guztiok gogoratuko dugu, orain sortu denaren antzeko arazoa sortu zen: Estatutuaren jakineko erabakiei buruzko zenbait ulerkerak Euskadiko Ezkerrarekin eta EArekin bat ez etortzea eragin zuen. Ondoren, EAJrekin itundu genuen; EAkoek, euren pentsakerei uko egin zietela eta, mota guztietako kritikak bota zizkieten EAJkoei. Euzko Alderdi Jeltzaleak orduan eman zuen erantzunean, EAren adikerak gezurrezkoak eta gehienera jotzekoak zirela adierazi zuen, eta lau urte beranduago Estatutuaren itunebideak edo gobernu-ituneak gauza horiek berak sortarazten ditu, Euzko Alderdi Jeltzaleak jakineko ulerkera ezartzen du eta Garaikoetxea jaunak "orain lau urte direla esaten genuena dela" esaten jarraitzen du, eta itunebideak iraun dituen bi egunetan -beste gauza batzutarako, honetan ez bait da aldaketarik sartu- EAJk eta Euskadiko Ezkerrak aurkeztutako testua onartzen da. Nork zuen arrazoia?

Gauza gehiago. Gure aldetik, programaren edukiari dagokionez ohar bat dago. Egia da ezin izan dugula programaren ezaugarriei buruz nahi adina hitz egin. Egin ahal izateko astirik izango dugu, argi gera dadila; astirik izango dugu. Baina nik zera esan nahi dizuet, alegia, programari gagozkiola dugun bat ez etortzea ez dela bakarrik ez batez ere, lehen esan dudanez, Estatutuari buruzko gauzengatik. Gu, esaterako, ez gatoz bat euskal nazioa eraikitzea xede duen zuen kultur egitasmoaren bizkarrezurra egituratzen duen asmo horrekin. Ez gatoz bat elkar hartze irizpidearekin, herriaren ikurrak eta moldeak sentiberatasunez bereganatu behar direla esaten delarik, herritarren barne-bizitzan eskua sartzea dela bait deritzot. Gu ez gara akort irakaskuntzan bi hizkuntz zernolako jartzearekin, zeren, Funtzio Publikoaren legea izan arren, mundu guztiak bait daki EAJrekin irakaslegoa euskalduntzeari buruzko izandako itunbideetan Alderdi Sozialistak bost zernolako aldezten zituela, ez bi. Bi zernolako, haietako batek, apalenak, eskola-elkargoarekin harremana euskaraz izan beharra ohartematen duelarik, jartzeko oso epe handia eman arren, bi zernolako ezbai gabeko behartze-egoera zela ulertzen bait genuen.

Gu kezkatu egiten gaitu, orain A eredua deritzon eta Euskal Herriko guraso askok umeak gazteleraz edo atzerriko hizkuntzaren batez hezi eta euskara ikasteko modua ematen duen hezkuntz sistema, kezkatu egiten gaitu eredu hori berriz ez izateak. Egia bait da, neurriak eta, mailakatu behar direla esaten dela, baina gobernu-programak arlo honetan duen guraria haur guztiek azkenean euskara jakin eta ereduak birraztertzea da. Eta ni bat nator haurrek OHO bukatzerakoan euskara ikasi eta euskara jakitearekin, eta A eredua ondo ez badabil, zuzendu dadila; baina ikaragarri kezkarazten nau familia gaztelera-hiztuna duten haurrei euskarazko hezkuntza beharturik jarri ahal izateak, hori berezko tamainako irakaskuntz arazoa dela, den bezala. Horrek kezkatzen gaitu.

Eta euskaraz hitz egiten dugunean, lehendakarigai jauna, utzidazu dena laburtzen duela uste dudan pentsaera bat adierazten azkenean. Zuk esan duzu eta arrazoia daukazu: arazo minbera da, nahasia, etabar...

**LEHENDAKARI** jaunak: Jáuregui jauna, bukatuz joan.

El Sr. JÁUREGUI ATONDO: Dos minutos. Pero, por ejemplo, ¿sería posible que, como una expresión de esa oferta de consenso y de entendimiento, el Gobierno Vasco que va a salir a partir de mañana, o de hoy, proponga la creación de una comisión parlamentaria que desarrolle el consenso en todo lo que se refiere a la práctica del euskera, en todo lo que se refiere a los modelos educativos desde el punto de vista lingüístico, en todo lo que se refiere a la euskaldunización de la Función pública, etcétera? ¿Sería posible eso? Yo creo que sería una buena muestra de apertura y de consenso.

Señor Garaikoetxea, yo no comparto la idea de que la distancia entre escuela pública y escuela privada sea una distancia obsoleta, sea un concepto obsoleto. Le voy a explicar muy brevemente por qué. Yo creo que las clases humildes siguen yendo a la escuela pública, y las clases medias y más adineradas van a la escuela privada. Yo creo que su programa de gratuidad, que cuesta 20.000 millones de pesetas/año para 1990, más otros gastos que hay que plantearse en el proceso educativo del País Vasco, van a impedir la potenciación de la escuela pública, y eso va a significar que la escuela pública no va a ser instrumento de compensación social, por la desigualdad de origen de sus miembros. Creo que ahí hay un elemento de discriminación que tiene una enorme importancia en el futuro modelo educativo del país.

Termino. Señor candidato, le quiero decir que a nosotros no nos mueve ni el despecho ni la posición política de estar fuera del Gobierno en el ejercicio de la oposición. Créame que queremos ser constructivos y serios con usted en el futuro. Únicamente, y en términos si quieren de una cierta analogía, nos ocurre que nos encontramos ante una oferta de Gobierno que nos obliga a decir que no, que no nos gusta. Es como cuando uno se sienta ante un concierto musical y se encuentra con una orquesta que desafina y una mala partitura, que es su programa. Si luego toca bien y funciona, adelante. Porque tenga usted en cuenta que este partido tiene entre sus banderas fundamentales su contribución a las políticas de moderación, de consenso, de apertura; que no son palabras vacías, señor Garaikoetxea, para mí no; que no es retórica hueca, porque tenemos la prueba, porque lo hemos demostrado durante muchos años como partido, generosamente, aportando nuestras mayorías a Gobiernos incluso minoritarios con nosotros para hacer posible esas políticas y esos valores. Son banderas del Partido Socialista, y las vamos a mantener en los próximos años. Que le quede claro, señor candidato, no vamos a renunciar jamás a esos valores, como tampoco renunciaremos, señor Aulestia, a la defensa del autonomismo y de la izquierda en este país. Gracias.

El Sr. PRESIDENTE: Gracias, señor Jáuregui.

Tiene la palabra el representante del Grupo Nacionalista.

El Sr. OLLORA OCHOA DE ASPURU: Señor Presidente, con la gentileza que le caracteriza, y en la medida además de que he consumido, de la media hora a la que tenía derecho, creo que escasamente veinte minutos, y por si acaso me extiendo en lo que es una contestación delicadísima fundamentalmente al representante socialista, supongo que gozaré de su magnanimidad.

Bien, yo empezaría con extraordinario cariño con el representante de Unidad Alavesa, señor Anúa. Cariño doble, nacido de mi condición de haber aprendido en la

JÁUREGUI ATONDO jaunak: Bi minutu. Baina, esaterako, posible ote litzateke, irizkidetasun eta elkar aditze eskaintza horren agerbide gisa, bihartik aurrera, edo gaurtik aurrera, aterako den Eusko Jaurlaritzak legebiltzar-batzorde bat sortzea proposatzea euskararen ihardunari dagokion guztian, hezkuntz ereduei hizkuntz aldetik ikusita dagokien guztian, Funtzio publikoaren euskalduntzeari dagokion guztian eta, irizkidetasuna aurrera eramateko? Egin ote liteke hori? Zabaltasun eta irizkidetasunaren agerbide ona litzatekeela uste dut.

Garaikoetxea jauna, ni ez nator bat herri-eskola eta norbanako-eskolaren arteko bitartea bitarte zaharkitua, irizpide zaharkitua delako ustearekin. Labur-labur azalduko dizut zergatik. Klase apalak oraindik ere herri-eskolara doazela uste dut, eta erdiko klaseak eta dirudunagoak norbanako-eskolara berriz. Nik uste zuen doakotasun-programak, 1990erako 20.000 miloi pezeta/urteko kostatzen bait da, Euskal Herriko hezkuntz bidean jarri beharreko beste gastu batzu gehituta, herri-eskola bultzatzea eragotziko dutela, eta horrek esan nahiko du herri-eskola ez dela, bere kideen etorkiko berdineztasunagatik, gizarte mailako ordaintze-tresna izango. Nik uste, hor bada bereizkeriazko alderdi bat herri honetako geroko hezkuntz ereduan gaitzeko garrantzia duena.

Bukatuko dut. Lehendakarigai jauna. Zera esan nahi dizut, alegia, guri ez digula eragiten Gobernutik kanpo egotearen ez amorruak ez jarrera politikoak aurkaritza egiteko. Sinetsidazu, onuragarriak eta benazkoak izan nahi dugu zurekin etorkizunean. Bakar-bakarrik, eta nahi baduzue nolabaiteko berdin-antzeko hitzetan, ezetz esan erazten digun, atsegin ez dugun, Gobernu-eskaintza baten aurrean gaudela, horixe gertatzen zaigu. Bat musika-emanaldi baten aurrean eseri eta desafinatzen duen orkestra batekin eta partitura txar batekin, horra zuen programa, topo egiten duenean bezala da hori. Gero ongi jo eta gauza badabil, aurrera. Zeren kontutan izan ezazu alderdi honek bere funtsezko banderen artean zuhurtzi, irizkidetasun eta zabaltze-politikei emandako laguntza daukala; eta ez dira hitz hutsak, Garaikoetxea jauna, neretzat ez; eta ez da erretolika hutsala, frogantza badaukagu eta, alderdi gisa urte askotan barrena frogatu bait dugu, eskuzabalki, politika horiek eta balio horiek gauzatu ahal izateko gurekin ere gutxiengodun ziren Gobernuei geure gehiengoak ekarriz. Alderdi Sozialistaren banderak dira, eta eutsi egingo diegu hurrengo urteetan. Argi izan ezazu, lehendakarigai jauna, sekula ez diegu balio horiei uko egingo, herri honetan, Aulestia jauna, autonomismoa eta ezkerra aldezteari uko egingo ez diogun bezala. Mila esker.

LEHENDAKARI jaunak: Mila esker, Jáuregui jauna.

Euzko Abertzaleak taldearen ordezkariak du hizpidea.

OLLORA OCHOA DE ASPURU jaunak: Lehendakari jauna, zeure-zeurea duzun adeitasun horrekin, eta gainera, eskubide nuen ordu erditik, nik uste doi-doiez hogei minutu ibili ditudanez gero, eta, batez ere ordezkari sozialistarentzakoa den erantzun zuhur-zuhur honetan luzatzen banaiz edo, zure eskuzabaltasuna izango dudala uste dut.

Hara, ni aparteko oneritziz hasiko nintzateke Unidad Alavesa-ren ordezkaria den Añúa jaunarekin. Oneritzi bikoitzarekin, zure gidatze-eskolan ikasitakoa

escuela de conducir de su propiedad, que usted ya dijo en una entrevista... *(Risas.)*

...y eso, pues, ya crea una cierta ligazón hasta intelectual, podríamos decir, por lo menos al estudiar el manual. Yo le voy a decir con extraordinario cariño: la verdad es que ha dicho cosas que no ha dicho el candidato, ha sacado conclusiones sobre ritmos vitales que no ha evidenciado ningún representante del grupo que apoya al Gobierno, y finalmente ha hecho una referencia a los programas que, con respeto, le he de decir que yo creo que no ha leído detalladamente el nuestro. Y finalmente también ha hecho una consideración sobre el modelo centralista. Yo le podría hacer una consideración fáctica y un desafío intelectual. Desafío intelectual: por favor, tenemos cuatro años para que juntos me intente encontrar un modelo de construcción de una Comunidad Autónoma más centralizado que el que nosotros estamos realizando. Primer tema. Ése es un desafío intelectual. *(Murmullos.)*

Segundo tema, sobre el modelo centralizado. ¡Cómo puede hablar de modelo centralizado, si ustedes magníficamente son la prueba más palpable del máximo grado de descentralización existente' ¡Si con 14.000 votos tienen tres representantes, contra fuerzas políticas en otra comunidad con más votos, que no tienen ninguno' Son el máximo ejemplo de descentralización, con que, para que no les quede duda, yo estoy de acuerdo y apoyo. Vale.

Luego ha hecho unas consideraciones de vitoriano a vitoriano, como se las puede hacer también el señor Ruiz de Pinedo, sobre el euskera, sobre la lengua, no tan afinadas intelectualmente como las ha hecho el señor Jáuregui, pero que me parecen en su caso increíbles y en su caso inasumibles. Y me va a permitir que me explique. Mire, señor Jáuregui, yo no sé, confío en que sí, que con detalle haya seguido lo que a mí me parece excelente discurso del candidato a Lehendakari. Me duele en el fondo que no comparta el serio esfuerzo de cambio de discurso ideológico que este partido y el movimiento nacionalista en general, democrático, está haciendo. Que hable de invadir sentimientos cuando hablamos de compartir símbolos, cuando antes se nos acusa de exclusivización, no es justo.

Pero yo le voy a decir la razón de fondo. La razón de fondo es que usted está defendiendo uno de los modelos de construcción de este país que ha evidenciado el candidato a Lehendakari, que es el de la coexistencia pacífica con la separación y la ignorancia respectiva. Eso es lo que está defendiendo. Y lo está defendiendo por estrictos motivos de interés electoral. Y lo está defendiendo por estrictos motivos de interés electoral porque quiere "guetizar" un espacio electoral que considera suyo, porque se da cuenta de que a medio plazo un proyecto de renovación como el que encarna el nacionalismo le reduce a la mínima expresión. Porque más apertura, deseo de integración y proyecto de comunicación que el que hace este Gobierno integrado por los sedicentes nacionalistas no se puede hacer. Y supongo que convendrá conmigo en que algún margen de confianza a este proyecto seriamente cambiante tiene que dar.

Pero, en cualquier caso, yo creo que el señor Mayor Oreja ha dicho dos grandes verdades, en las que ya les aseguro que es la intención de este Gobierno coincidir todos. Ha dicho dos grandes verdades: el Estatuto sirve en la medida en que sirva para unir a los vascos, y éste es el proyecto de espacio de encuentro que quiere desarrollar este Gobierno. Así ha concebido el Estatuto, así se delinea intelectualmente en lo que ha sido la tray-

naiz eta, zuk elkarrizketa batean esan zenuen bezala... *(Barreak.)*

... eta horrek, zera, adimen mailako ere, esan genezake, nolabaiteko lotura sortzen du, esku-liburua ikastean behinik-behin. Aparteko oneritziz esango dizut: egia esan lehendakarigaiak esan ez dituen gauzak esan dituzu, Gobernuari eusten dion taldearen ezein ordezkarik erakutsi ez dituen bizitza-abiadei buruzko ondorioak atera dituzu, eta azkenean programak nola aipatu dituzun ikusita, begirunez, gurea zehatz-mehatz ez duzula irakurri uste dudala esan behar dizut. Eta azkenean oharpide bat egin duzu eredu erdirakoiaz. Egitezko oharpide bat eta adimen-erronka bat egin niezazuke. Adimen-erronka: arren, lau urte ditugu, elkarrekin, guk egiten dihardugun baino Autonomi Elkarte bat eraikitzeko eredu erdiratuagoa aurkitzen saia zakizkidan. Lehen gaia. Adimen-erronka da hori. *(Marmarrak.)*

Bigarren gaia, eredu erdiratuari buruz. Nolatan hitzegiten ote duzu eredu erdiratuaz, zuek, ederki baino ederkiago, dagoen deserdiratze-mailarik handienaren frogantzarik egiaztagarriena zaretela' 14.000 botorekin hiru ordezkari dituzuela, aldean, beste elkarte batean, boto gehiago izan eta batere ordezkaririk ez duten indar politikoak direlarik' Deserdiratzearen adibiderik handiena zarete, eta horrekin, duda izpiririk izan ez dezazuen, ni bat nator eta eutsi egiten diot. Nahikoa.

Gero gasteiztar arteko zenbait oharpide egin dituzu, Ruiz de Pinedo jaunak ere egin ditzakeen bezala, euskarari buruz, hizkuntzari buruz, Jáuregui jaunak egin dituenak bezain zehatzak ez direnak adimen aldetik, baina zuri dagokizunez sinestezinak eta zuri dagokizunez onartezinak iruditzen zaizkidanak. Eta hau azaltzen utziko didazu. Hara, Jáuregui jauna, nik ez dakit, baietz espero dut, nere ustez lehendakarigaiaren hitzaldi bikaina izan dena zehatz-mehatz entzungo zenuela. Min ematen dit funtsean alderdi hau eta mugimendu abertzalea orohar, demokratikoa, bere pentsakera-moldea aldatzeko egiten ari den benazko ahalegina zuk ez partekatzeak. Ikurrak partekatzeaz mintzo garelarik sentimenei esesteaz mintzatzea, lehenago esklusibotzea salatu digutelarik, ez da zuzena.

Nik ordea funtsezko arrazoia esango dizut. Funtsezko arrazoia zera da, alegia, zu Lehendakariak agerian utzi dituen herri hau eraikitzeko ereduetako bat aldezten ari zarela, hau da, elkarbizitza baketsuarena bereizketarekin eta elkar baztertzearekin. Horixe ari zara aldezten. Eta hauteskunde-interes hutsezko arrazoiengatik ari zara aldezten. Eta zeuretzat jotzen duzun hauteskunde-eremu bat "ghetto" bihurtu nahi duzulako ari zara hauteskunde-interes hutsezko arrazoiengatik aldezten, erdiko epera abertzaletasunak itxuratzen duena bezalako berriztatze-egitasmo batek ezin eta ttikiago bihurtuko zaituela ohartzen zara eta. Izan ere direlako abertzaleek osatutako Gobernu honen irekitasuna, bateratu-nahia eta harreman-proiektua baino areagokorik ezinezkoa da. Eta erabat aldatzailea den proiektu honi konfidantza pixka bat eman beharko diozulakoan uste dut nerekin bat etorriko zarela.

Baina, dena dela, Mayor Oreja jaunak bi egia borobil esan dituela uste dut, horri buruz Gobernu honen asmoa denok bat etortzea delarik. Bi egia borobil esan ditu: Estatutua euskal herritar guztiak biltzeko baliagarri den heinean da baliagarri, eta hori da Gobernu honek garatu nahi duen bilgune proiektua. Horrela ikusi du Estatutua, gaur lehendakarigai denaren ekintza politiko eta teorikoan horrela ikusi izan da, gehiegike-

ectoria teórica y política del que es hoy candidato a Lehendakari, hasta la exacerbación. Espacio de encuentro, no instrumento de reivindicación política; solución a los problemas de los ciudadanos vascos.

Y, segundo, también el representante del Grupo Popular ha dicho otra gran verdad, porque nos ha dado un margen de confianza que usted ha negado; ha negado a pesar de que ahora dulcifique. Mire, hay una vieja táctica conocida: primero tiremos la piedra, y luego escondamos la mano. Y el señor Arzalluz, que con su gran clarividencia ya veía por dónde podían venir los tiros, calificaba a un Gobierno nacionalista de que iba a ser criticado de frentista, y los que han hecho delineamiento teórico permanente de los efectos perversos del frentismo han sido ustedes estos quince días. Exclusivamente hoy aquí ha reconocido legitimidad al resultado y legitimidad al proyecto. Nunca, en ninguna de sus declaraciones, ni suya ni de los grandes compañeros de dirección que se sientan con usted, encontraremos en estos quince días un reconocimiento a la legitimidad democrática del resultado.

Y la verdad del señor Mayor Oreja donde nos podemos encontrar. Él ha dicho: "Este Gobierno se va a medir por la capacidad que tenga de llegar a acuerdos". Sí señor, ése es el desafío que tenemos, en eso estamos empeñados y esperamos la colaboración leal de esta Cámara.

Para finalizar, como decía el compañero Aulestia, con los trece de la fila de atrás, los mismos trece que existían antes de las elecciones. Miren, señorías, yo creo sinceramente que más que nadie ustedes calibran el desplazamiento sociológico que en la sociedad vasca se está produciendo en torno a la convicción mayoritaria de que es preciso que los innombrables dejen las armas. Eso a ustedes les está llevando a un autoaislamiento. Tiene una ventaja: sabemos cuántos son, trece de 75. Y, a su vez, a aquéllos de ustedes que quieren transformar su movimiento en algo civil y civilizado, les sume en un círculo vicioso de difícil salida. Mientras tanto, a todos los que integramos el bloque democrático sólo nos queda una cosa: esperar si dentro de ustedes se mueve, por si se mueve algo, y mientras tanto guardar la legalidad y a poder ser defender las vidas humanas. Muchas gracias.

El Sr. **PRESIDENTE**: Muchas gracias, señor Ollora.

Con esta intervención, y de acuerdo con el Reglamento, finaliza el debate. Y, por lo tanto, a continuación se debe pasar a las votaciones. Sin embargo, antes de proceder a las mismas quiero dar lectura a un documento que me han hecho llegar diversos grupos parlamentarios. Dice así:

"Los grupos parlamentarios firmantes, en la sesión del Pleno del Parlamento Vasco del día 31 de enero de 1991, hacen la siguiente declaración:

"Primero, expresan su indignación y condena por el atentado cometido en el día de hoy, que ha costado la vida a don Francisco Díaz de Cerio, al tiempo que muestran su condolencia y pesar a sus familiares y allegados.

"Dos, denuncian a los autores de este asesinato y a quienes les prestan su apoyo político e ideológico, sembrando el dolor y la inseguridad en nuestra sociedad, tratando de impedir que este país alcance sus objetivos de paz, convivencia y progreso.

riaraino. Bilgunea, ez politika-eskakizunerako baliapidea; euskal herritarren arazoen irtenbidea.

Eta, bigarrenik, Popular Taldeko ordezkariak beste egia borobil bat ere esan du, zuk ukatutako konfiantza eman digulako; ukatu egin duzu nahiz eta orain baretu nahi izan. Begira, bada jokabide zahar bat ezaguna: lehenengo harria bota, eta ondoren eskua ezkutatu. Eta Arzalluz jaunak, bere adimen argiarekin, zuen erasoak nondik etor zitezkeen ikusirik, Gobernu abertzale bati frentismoa leporatuko zitzaiola esan zuen eta frentismoaren eragin kaltegarriak etengabe azpimarratu dituztenak zuek izan zarete azken hamabostaldian. Bakar-bakarrik gaur hemen onartu duzu emaitza bidezkoa dela eta proiektua bidezkoa dela. Inoiz, zure adierazpenetan, ezta zurekin hemen jarrita dauden zuzendaritzako kide ospetsuenetan ere, ez dugu hamabostaldi honetan emaitzaren bidezkotasun demokratikoarekiko onarpenik aurkitu.

Eta Mayor Orejaren egia bilgune izan dezakegu. Honako hau esan du: "Gobernu hau akordioak lortzeko gaitasunaren heinean izango da neurtua". Bai jauna, hori da aurrean dugun erronka, horretan ari gara eta Legebiltzar honen laguntasun leiala izatea espero dugu.

Bukatzeko, Aulestia kideak zioenez, atzeko errokako hamairuei, hauteskundeak baino lehen zeuden hamairu berei erantzuteko. Begira, jaun-andreok, gehienen ustez aipatu ezinezkoek armak uztea beharrezkoa delakoari buruz euskal gizartean gertatzen ari den aldaketa neurtzeko inor baino egoera hobean zaudetela benetan uste dut. Hori zuei zeuen buruak bakardadera eraman erazten ari zaizue. Abantail bat du: badakigu zenbat zareten, 75etik hamahiru. Eta, era berean, zuen mugimendua herri-legepeko eta gizalandutako bihurtu nahi duzuenetako batzu irteera gaiztoko elkarrekiko etengabeko eragin batean sartzen zaituzte. Bitartean, talde demokratikoa osatzen dugun guztioi gauza bakarra gelditzen zaigu: ea zuen artean aldaketaren bat sortzen den, eta bitartean legeari men egin eta, ahal izanez gero, gizakumeak aldeztu. Mila esker.

**LEHENDAKARI** jaunak: Mila esker, Ollora jauna.

Eskuhartze hau bukatu ondoren, eta Araudiak agintzen duenaren arabera, eztabaidaketa honi bukaera ematen zaio. Eta, beraz, ondoren boto-emanketetara jo behar da. Hala ere, horietara jo baino lehenago, legebiltzar-talde ezberdinek eskuratu didaten agiri-papera irakurri nahi dut. Honela dio:

"Izenpetzen duten legebiltzar-taldeek, 1991.eko urtarrilaren 31n Eusko Legebiltzarrak egindako Osoko Bilkuran, honako adierazpen hau egiten dute:

"Lehenengo eta behin, gaur egindako atentatua dela eta euren haserre eta salakuntza adierazten dute, Francisco Díaz de Cerio jauna bertan hilik gertatu dela, eta aldi berean senide eta ahaideei dolumina eta atsekabea azaltzen diete.

"Bigarrenik, hilketa honen egileak eta politika eta ideologiazko laguntza ematen dietenak salatu egiten dituzte, gure gizartean ziurtasunik eza eta atsekabea sortzen dutela, herri honi pakea, elkarbizitza eta aurrerapidea lortzea galeraziz.

"Tercero, los grupos parlamentarios firmantes quieren realizar una vez más un llamamiento al compromiso y a la movilización de todos los ciudadanos vascos para que manifesten su más absoluto rechazo a estos actos criminales que atentan contra la vida de las personas y las ansias de paz de nuestra sociedad".

Los grupos firmantes son: Nacionalistas Vascos-Euzko Abertzaleak, Socialistas Vascos, Eusko Alkartasuna, Grupo del Partido Popular, Grupo de Euskadiko Ezkerra y Grupo Mixto-UA.

Dicho esto, se hace un receso de cinco minutos para permitir la distribución de las papeletas y la traída de la urna y de los... Pero cinco minutos exclusivamente, o sea que a las nueve y cuarto vamos a proceder a la votación. Y quiero recordarles también que durante la votación no se puede salir ni entrar en la sala. Por lo tanto, les ruego puntualidad.

*Se suspende la sesión.*

*Se reanuda la sesión.*

El Sr. **PRESIDENTE**: Se reanuda la sesión.

Va a procederse a la votación prevista en el artículo 129 del Reglamento. En atención a lo dispuesto en el artículo 77 del Reglamento, la votación se realizará por papeletas. Recuerdo a sus señorías que en las papeletas sólo cabe escribir el nombre del candidato a Lehendakari o presentarlas en blanco. Cualquier otra será considerada nula.

Procédase a determinar el parlamentario por el cual va a iniciarse la votación. *(Pausa.)*

El Sr. **SECRETARIO PRIMERO** (Barrio Baroja): Se procederá por el señor San Ildefonso Izaguirre, Roberto. *(Pausa.)*

*El Sr. Secretario Primero procede al llamamiento de los señores parlamentarios, a fin de realizar la votación.*

*Efectuada la votación, el resultado fue el siguiente: votos emitidos, 61; a favor de D. José Antonio Ardanza Garro, 36; en blanco, 25; nulos, ninguno.*

El Sr. **PRESIDENTE**: No habiéndose alcanzado la mayoría absoluta, que sería de 38, esta Presidencia convoca nueva votación para mañana, día primero de febrero, a las once de la mañana. Se suspende la sesión.

*Eran las 21 horas, 36 minutos.*

"Hirugarrenik, izenpetzen duten legebiltzar-taldeek beste behin euskal herritar guztiei eskuhartzeko eta beren jarrera agertzeko dei egiten diete gizabanakoen bizitzari eta gure gizartearen pake-gogoari eraso egiten dieten gaizkin-ekintza guzti hauen erabat aurka egiteko".

Talde izenpetzaileak honako hauek dira: Euzko Abertzaleak-Nacionalistas Vascos, Euskal Sozialistak, Eusko Alkartasuna, Partido Popular-eko Taldea, Euskadiko Ezkerrako Taldea eta Askotariko Taldea-UA.

Hau esanik, bilkura bost minutuz etengo dugu boto-txartelak banatu eta atabaka eta... ekartzeko. Baina bost minutu bakar-bakarrik, hau da, bederatziak eta laurdenetan boto-emanketara joko dugu. Eta boto-emanketa egiten den bitartean ezinezkoa dela aretotik irtetea edo sartzea oroitarazi nahi dizuet. Beraz, mesedez garaiz etorri.

*Bilkura eten egin da.*

*Bilkurari berriz ekin zaio.*

**LEHENDAKARI** jaunak: Bilkurari berriz ekiten zaio.

Araudiaren 129. atalak agintzen duen boto-emanketara joko da. Araudiaren 77. atalak agintzen duenari atxikiz, boto-emanketa txartelekin egingo da. Boto-txarteletan lehendakarigaiaren izena jartzea edo zuri uztea bakarrik dagokiola oroitarazi nahi dizuet jaun-andreoi. Gainontzekoak ez dira baliozkoak izango.

Boto-emanketarako lehenengoa izango den legebiltzarkidea izendatzera jo dezagun. *(Isilaldia.)*

**LEHENENGO IDAZKARI** (Barrio Baroja) jaunak: San Ildefonso Izaguirre, Roberto, jaunak emango dio hasiera. *(Isilaldia.)*

*Lehenengo Idazkari jaunak legebiltzarkide jaunei dei egiten die, boto-emanketa egin dadin.*

*Bototara jarrita, honako hau izan da ondorioa: emandako botoak, 61; on José Antonio Ardanza Garroren aldekoak, 36; zuriak, 25; baliorik gabeak, batere ez.*

**LEHENDAKARI** jaunak: Erabateko gehiengoa, 38koa litzatekeena, lortu ez denez, Lehendakaritza honek beste boto-emanketa baterako deia egiten du biharko, otsailaren lehenengoa, goizeko hamaiketarako. Bilkura eten egin da.

*21ak eta 36 minutu direla eten da.*

*Se reanuda la sesión a las 11 horas, 21 minutos, del día 1 de febrero.*

El Sr. **PRESIDENTE** (Leizaola Azpiazu): Bilkurari berriro ekiten zaio. Faborez eseri zaitezte.

Beste ezer baino lehen, zera adierazi nahi dut. Atzo emandako botoetatik, Ardanza jaunaren aldekoak 36 boto eta zuri emandakoak 25 zirela esan genuen arren, boto-txartelak egiaztatu ondoren, boto-emanketako emaitza honako hau izan zela egiaztatu dugu: Ardanza jaunaren aldeko botoak 37 eta zuri emandakoak 24 izan ziran.

Se reanuda la sesión.

En primer lugar quiero señalar que, aun cuando al finalizar la votación de ayer se dio como resultado de la misma 36 votos a favor del candidato a Lehendakari, señor Ardanza, y 25 votos en blanco, comprobadas las papeletas el resultado de la votación fue de 37 votos a favor del señor Ardanza y 24 votos en blanco.

Ondoren Araudiko 129.3 atalean ohartemandako boto-emanketa egingo da lehenengoa, hau da, atzokoa, egin zen era berean.

A continuación se va a proceder a la votación prevista en el artículo 129.3 del Reglamento, en la misma forma en que se realizó la primera. Procédase a determinar el parlamentario por el cual va a iniciarse la votación. *(Pausa.)*

El Sr. **SECRETARIO PRIMERO** (Barrio Baroja): Elorza González, Odón. *(Pausa.)*

*El Sr. Secretario Primero procede al llamamiento de los señores parlamentarios a fin de realizar la votación.*

*Efectuada la votación, el resultado fue el siguiente: votos emitidos, 62; a favor de D. José Antonio Ardanza Garro, 37; en blanco, 25; nulos, ninguno.*

El Sr. **PRESIDENTE**: Ondorioz, José Antonio Ardanza Garro jaun txit gorena Eusko Jaurlaritzako Lehendakari hautatuta geratzen da. *(Aplausos.)*

En consecuencia, queda designado Lehendakari del Gobierno Vasco el excelentísimo señor don José Antonio Ardanza Garro.

Datorren igandean, otsailak 3, izango da Gernikako Batzar Etxean, jaun-andreoi jakitera emango zaizuen eran, Lehendakariak zin egiteko eta karguaz jabetzeko ospakizuna.

El domingo, día 3 de febrero, tendrá lugar, en la forma que se dará a conocer a sus señorías, la toma de posesión y juramento del Lehendakari en la Casa de Juntas de Gernika. Se levanta la sesión.

*Eran las 11 horas, 37 minutos.*

*Otsailaren 1eko 11k eta 21 minutu direla hasi da berriz bilkura.*

**LEHENDAKARI** (Leizaola Azpiazu)jaunak: Se reanuda la sesión. Tomen asiento, por favor.

En primer lugar quiero señalar que, aun cuando al finalizar la votación de ayer se dio como resultado de la misma 36 votos a favor del candidato a Lehendakari, señor Ardanza, y 25 votos en blanco, comprobadas las papeletas el resultado de la votación fue de 37 votos a favor del señor Ardanza y 24 votos en blanco.

Bilkurari berriro ekiten zaio.

Beste ezer baino lehen, zera adierazi nahi dut. Atzo emandako botoetatik, Ardanza jaunaren aldekoak 36 boto eta zuri emandakoak 25 zirela esan genuen arren, boto-txartelak egiaztatu ondoren, boto-emanketako emaitza honako hau izan zela egiaztatu dugu: Ardanza jaunaren aldeko botoak 37 eta zuri emandakoak 24 izan ziran.

A continuación se va a proceder a la votación prevista en el artículo 129.3 del Reglamento, en la misma forma en que se realizó la primera.

Ondoren Araudiko 129.3 atalean ohartemandako boto-emanketa egingo da, lehenengoa, hau da, atzokoa, egin zen era berean. Boto-emanketa zein legebiltzarkidetatik hasiko den erabaki dezagun. *(Isilaldia.)*

**LEHEN IDAZKARI** (Barrio Baroja) jaunak: Elorza González, Odón.

*Lehen Idazkari jaunak legebiltzarkide jaunei dei egin diete, botoa eman dezaten.*

*Bototara jarrita, honako hau izan da ondorioa: emandako botoak, 62; José Antonio Ardanza Garro jaunaren aldekoak, 37; zuriak, 25; baliorik gabeak, batere ez.*

**LEHENDAKARI** jaunak: En consecuencia, queda designado Lehendakari del Gobierno Vasco el excelentísimo señor don José Antonio Ardanza Garro. *(Txaloak.)*

Ondorioz, José Antonio Ardanza Garro jaun txit gorena Eusko Jaurlaritzako Lehendakari hautatuta geratzen da.

El domingo, día 3 de febrero, tendrá lugar, en la forma que se dará a conocer a sus señorías, la toma de posesión y juramento del Lehendakari en la Casa de Juntas de Gernika.

Datorren igandean, otsailak 3, izango da Gernikako Batzar Etxean, jaun-andreoi jakitera emango zaizuen eran, Lehendakariak zin egiteko eta karguaz jabetzeko ospakizuna. Bilkura amaitu da.

*11k eta 37 minutu dira.*

Imprime: Imprenta Pradells
Miravalles, 3 - 01013 Vitoria-Gasteiz - D.L. VI-526/80

Irarle: Pradells Moldiztegia
Miravalles, 3 - 01013 Gasteiz - L.B. VI-526/80